

BALEIKE

ZENBAKI HONEKIN BATERA
+ GUKA ALDIZKARIA



ESTAZIO AUZOA

AHANZTURAREN GELTOKIAN



ENDAÑETAk
ez du saldu
bakarrik egiten,
arreta ere
ematen du

www.endañetazumaia.com

Erribera, 8 · 943-86 16 94 · 943-86 21 47

TiEN21



egutera

ZUMAIKO ENERGIA KOOPERATIBA

**Egotetik
egiterra goaz.**

Zumaian bertan
eguzki energia
sortuko dugu.

Eman izena
orain, eta
bazkide egiteko
lehentasuna
izango duzu



labur.eus/egutera
Eman izena inolako
konpromisorik gabe



Zumaiko
Udala



Z ZUMAIKO
BIZITZEKO
DA

GERTU
ZUMAIAKO ENERGIARIKIN BAZKIDETZAN



zumalena



BALEIKE 326

2022-ABENDUA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
ARNAITZ RUBIO APREA



Aurkibidea

- | | | | |
|----|----------------------------------------------------------------------------------------------|----|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| 4 | Hitz tantak Juan Luis Romatet
<i>Eire Maia eta Eire Salegi</i> | 28 | Izpiak eta hizkiak Arnaitz Rubio
Aprea
<i>Unai Roman Eizagirre Isasti</i> |
| 6 | Hainbat aburu Ane Zabaleta
Lopetegi
<i>Lehorteez eta uholdeez. Nondik hasi?</i> | 31 | Zientzia eta ingurumena Asier
Hilario Orus
<i>Zumaiako adierazpena. Ondare geologikoa garapeneko baliabide iraunkorren aldeko apustua</i> |
| 7 | Errematea Iosu Alberdi
Ardura | 37 | Hamaika argi gure euskarari
Imanol Azkue Ibarbia eta Daniel
Carballo Ostolaza
<i>Lapurreta</i> |
| 9 | Erreportajea Jabi Gonzalez Toston
<i>Ezohiko hirukotearen kirol kluba</i> | 43 | Agenda |
| 14 | Erreportajea Juan Luis Romatet
<i>Denboraren tolesturetan ahaztutako auzoa</i> | 44 | Literatura Antton Peñalba
<i>72 ordu</i> |
| 20 | Erretratua Juan Luis Romatet
<i>Juan Jauregi Urbieto, desinfektatzailea</i> | 45 | Nire txanda Ander Intxaurreondo
<i>Gaixotasun mentalak</i> |
| 25 | Heziketa Mireia Centeno
<i>Txupetea Olentzerori oparituko diogu!</i> | 46 | Azkena Juan Luis Romatet
<i>Komuneko kazetaritza</i> |
| 26 | Plazan bazan | | |

BALEIKE



Argitaratzailea

Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Soreasu 1. 20730
AZPEITIA
943-86 15 45
aldizkaria@baleike.eus
www.baleike.eus

Zuzendaria

Juan Luis Romatet
jlromatet@ukt.eus
Erredaktore taldea
María Maya Manterola
Onintza Lete Arrieta
Jabi Gonzalez Toston

Argazkilaria

Arnaitz Rubio Aprea

Diseinu arduraduna

Ane Azkue

Hizkuntza arduraduna

Imanol Azkue Ibarbia

Publizitate arduraduna

Felix Aizpurua
faizpurua@ukt.eus

Administrazio arduraduna

Uxua Ostolaza
uostolaza@ukt.eus

Inprimategia

Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)

Lege Gordailua:

SS-405/94

ISSN: 1136-8594

Tirada: 1.000 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia

Zumaiako
Udala



Eire Maia eta Eire Salegi

TESTUA: JUAN LUIS ROMATET

ARGAZKIA: ARNAITZ RUBIO APREA

Txiki-txikitatik ezagutzen dute elkar Eire Maiak (Zumaia, 2002) eta Eire Salegik (Zarautz, 2002). Eskolan batera ibili dira, baita Zumaiaiko Futbol Taldean ere; unibertsitatean, baina, bakoitzak bere bidea hartu zuen: Ikus-entzunezkoen Komunikazioa ari da ikasten Maia, eta Telekomunikazio Ingeniaritza, Salegi. Orain, musika proiektu batek elkartu ditu berriro.

Bi Eire, herri berean, garai berean... Gipuzkoan zuena bezalako kasu gutxi izango da, bada.

Eire Salegi: Jakingo bazenu zenbat aldiz esan diguten hori! Eskolako gela berean ibili gara biok, baina ez da hori soilik. Gelan batera egon ginen, Zumaiaikon ere batera ibili ginen; beti batera.

Eire Maia: Pertsonalki ere gauza asko partekatzen ditugu.

Eire Salegi, zuretzat zer da Eire Maia?

E.S.: Dena konpartitzen dut berekin. Ni gaur egun naizena beragatik da, parte handi batean. Nire pertsonalitatea garatzen lagundu dit, batera hazi garelako urte hauetan guztietan. Zerbait gertatzen bazait, berari esaten diot lehenbizi.

Eta Eire Maia, Eire Salegi zer da zuretzat?

E.M.: Esango nuke nire bizitzako pilare handienetakoa dela. Beti nirekin egon da. Badakit hor egongo dela zerbait behar dudanean. Txiki-txikitatik hor egon den pertsona da, eta ez dut imajinatzen bizitza bera gabe.

Musika jarduera ere partekatzen duzue.

Euskaraldiko lehen ekitaldian jo zenuten elkarrekin, adibidez.

E.S.: Gure harremanean oinarri garrantzitsua izan da musika. Musikaren erro guztiak partekatzen ditugu. DBH garaian talde batzuk deskubritu genituenean, biok deskubritu genituen batera.

E.M.: Gure inguruan beste inork ez zituen entzuten talde horiek.

E.S.: Txikitatik izan dugu musikaren inguruko harremana, eta ez musika entzutean bakarrik. Berak oso ondo abesten du, eta nik urte asko daramatzat gitarra jotzen.

E.M.: Beti izan dugu elkartu eta gure orduak musikaren bueltan pasatzeko beharra. Kapazak gara aspertu gabe zortzi ordu elkarrekin egoteko kanta bat egiten.

Batak abestu egiten du, besteak gitarra jo.

E.S.: Ekoizpen lanak ere gustatzen zaizkit. Sormen lanak eta alde teknikoak uztartzen ditut. Esan daiteke ni alde teknikoaz arduratzen naizela, eta bera, konposizioaz.

E.M.: Letrak idazten ditut, kanta bat idazten dut, eta horri gitarra akorde batzuk gehitzen dizkiot. Gero, segituan berari pasatzen diot, eta nahi duena egiteko esaten diot.

Zenbat kanta sortu dituzue dagoeneko?

E.S.: Gure arazoa da ez ditugula kantak bukatzen! Berak letra eta melodia mordoa ditu; nik soinu desberdin asko, baina gero *loop* horretatik ez gara ateratzen. *Espabilatu* beharra dugu, gure helburua badelako musikan zerbait egitea.

E.M.: Txiki-txikitatik izan dugu gogo hori.

E.S.: Beste kanta batzuk ere baditugu buruan, eta uste dugu orain dela gure musika plazaratzeko momentua; ez badugu orain pausoa ematen, gerora ez dugu emango.

E.M.: 11 urte genituenetik ari gara abestiak sortzen. Hainbeste denbora pasatu arren, gure helburua da elkarrekin zerbait serioa egin eta produktu bat ateratzea.

E.S.: Gainera, nork daki gaur dugun grina hau hemendik lau urtera ere edukiko dugula? Nik uste dut orain dela momentua. Abesti bat eginda dugu, eta beste pare bat bukatzea da asmoa. Ziur naiz aterako ditugula. Lagun batekin ere hitz egin dugu azala egiteko.

Proiektuari izenik jarri al diozue?

E.M.: Izena Eire da. Ez dugu asko prentsatu; bestela ere nahiko originala da.

E.S.: Proiektuak zer soinu izango duen erabakita daukagu, eta gero, kantaz kanta joango da aldatzen. Izena, esan bezala, Eire da, eta estetika pixka bat pentsatuko dugu. Garrantzitsuena musika da, eta hori dagoeneko pentsatuta daukagu. ■■■





Lehorteez eta uholdeez. Nondik hasi?

U da lehorra eta bereziki beroa izan da aurtengoa, eta udazkenak ere antzeko traza darama. Alarmak piztu dira gune askotan, ura intereseko gaia bihurtu da aste batzuez, eta hori ez da batere ohikoa gurean. Urak bere onera bueltatzen direnean, ordea, azkar ahazten dugu krisia, baina hori da gogoeta sakona egiteko momentua. Eta bada garaia uraren gaia energiarena bezain serio har dezagun eta aurrera begira gero eta ohikoagoak izango diren arazoei aurre egiteko bide estrategikoak marrazten has gaitezen. Baina, nondik hasi?

Hari mutur asko dituen gaia da. Azken sei hamarkadetan gure ibaietako ur emariak behera egin dute, batez ere udazkenean. Garai delikatua da

hau ur hornidurari begira, udako agorralditik datorrena. Aurrerantzean beheranzko joera horrek jarraitu egingo du. Gainera, ziklo hidrolotikoa intentsifikatu egingo da, eta gero eta zailtasun handiagoak izango ditugu jakiteko ura eskuragarri noiz izango dugun. Horrek, noski, tentsioak sor ditzake erabiltzaileen artean, bai giza jardueretarako erabiltzaileen artean, baita ekosistemekin ere. Ez dezagun ahantz 2000. urteko uraren esparruko zuzentarauak

**BADA GARAIA
URAREN GAIA
ENERGIARENA BEZAIN
SERIO HAR
DEZAGUN**

behartu egiten gaituela ibaiari beren funtzionamendurako beharrezko duten ura uztera.

Prezipitazioen datuetan ez da joera garbirik nabarmentzen. Baina temperaturek igoera argia izan dute, eta horiek zuzenean eragiten dute ziklo hidrolotikoko atalik ahaztuenean, ebapotranspirazioan (hau da, uraren lurrunketa eta izerditzearen prozesu konbinatuan). Ikasia dugu guztiok uraren zikloari esker planetan dagoen ura birziklatzen doala etengabe: uraren lurrunketa eta izerditzearen ondorioz, ura atmosferara igarotzen dela eta atmosferako ura kondentsatzen denean euri edota elur moduan lurraren gainean prezipititzen dela.

Ziklo hori ibai arro eskalara ekarrita, esan dezakegu gure

HAUXE BAI JENEROA!



inguruko ibai arro batean urtebetean erortzen den prezipitazioa bi zati nagusitan banatzen dela: batetik, ebapotranspirazioan; eta, bestetik, ibaietatik eta akuiferoetatik dabiltzan ur emarietan (horixe da, hain zuzen ere, hornidurarako erabilgarri duguna). Bankuko gure kontu korrontearekin aldera dezakegu: sarrerak (prezipitazioa) eta irteerak (ebapotranspirazioa eta emariak). Balantze horretan, prezipitazioak ezin ditugu kudeatu (eta hala jarrai dezala, ez baitu inoiz euria guztion gustura egiten), ezta tenperatura ere, baina bai ebapotranspirazioa; izan ere, azken hori zuzen-zuzenean dago lotuta lurraldearen erabilerei: erabilera batzuek (hazkunde azkarreko espezie

exotikoen plantazioek, kasu) ur gehiago behar dute (izerditze handiagoagatik) beste batzuek baino (larreak, kasu). Horrela, beraz, tenperaturen igoerak ebapotranspirazioa handituko du, eta ur eskuragarria gutxitu egingo da. Baina gutxitze horri aurre egitea posible da lurralde erabilerak egokituz, ur gutxiago behar duten erabileren bitartez. Hori bereziki interesgarria da uraren ikuspegitik lehentasuna duten espazioetan, hala nola, ur hornidurarako urtegi edo hartuneak dauden ibai arroetan, babestu beharreko hezegune edo bestelako ur ekosistemak daudenetan...

Horra, beraz, urak bere onera datozenean egin beharreko gogoetarako lehen puntua: uraren kudeaketak ura tutuan sartu aurretik hasi behar luke, ibai arroan bertan. ■■■

ERREMATEA



IOSU ALBERDI

Ardura

Espainiako Barne ministro ohi Jose Barrionuevoren adierazpenak eta, batez ere, haiek eragindako erreakzio sorta, eskual gatazkaren ondorioen testuinguruan egindako bidearen eta egiteko geratzen denaren adibide dira. Hala, Foro Sozial Iraunkorrek azaldu zuen erreakzio politiko eta soziala biktimek jasandako birbiktimizazioaren mailan egon zela, baina, baita hura salbuespen bat izan zela ere.

Egindako bidean zein aurrera begirakoan badute espazio berezitu bat komunikabideek, iritzi publikoa eraikitzeke garaian duten eragin nabarmenagatik. Urrunago joan gabe, prozesu horri eragiten dioten hautuak dira Barrionuevo elkarrizketatzeko eta GALen ekintzak gogoratzeko modu hori. Eta horiek zerikusi gutxi dute biktimen aitortzarekin eta, ondorioz, bake kazetaritza deritzonarekin.

Izan ere, existitzen da bake kazetaritza bat, gerra kazetaritza hegemonikoaren aurrean. Gatazkaren eraldaketara orientatutako kazetaritza litzateke, arazo estruktural eta kulturaleri ere erreparatuko diena. Eta, noski, baita biktimen ahotsei leku bat eskaintzen diena ere, haien birbiktimizazioa sustatu gabe; aitortza, justizia eta erreparazioa lortzea xede dituen. Finean, kazetaritza arduratsu bat. ■■■



PUBLIZITATEA

a3 diseinua
inprimatzea

Alai 8. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
tel: 943-14 31 22 • fax: 943-14 31 20
a3@a3zumaia.com • www.a3zumaia.com

f t i

Agurtzane Okindegia

Erribera 2 • 943-96 21 52

Aita Mari
JATEXEA
ZUMAIA

679 10 31 67
Juan de Zigarán, 1
Zumaia
@aitamarijatexea@gmail.com

f i

AIZPURUA

LIBRURU
DENDA

Aita-Mari auzategia, 17
tel. 943-86 15 69

AL-ANON

Alkoholikoen seride eta lagunen elkarte
Tel. 650 26 59 63
Ordutegia: asteazketan, 20:00-22:00
larunbatetan, 19:00-21:00

ALBERDI
dekorazioa

• Eskaiola
• Pladura-

696 72 61 88
943-14 32 61

Amama
taberna

tel. 943-57 46 51
amamataberna@gmail.com
Ortega y Gasset kalea 4. Zumaia (Gipuzkoa)

Ane Ibarretxe • Hariz Klinika

Ardantzabide, 3. behea • Zumaia
943-54 35 70 • 688 73 38 56

OKINDEGIA
Arkupe

Nagusia, 2 • tel. 943-96 15 21
ZUMAIA

OGI-EDER

ATARI
TABERNA

Pintxo bereziak eta olagarro-zopa

Ardantzabide, 16 • Tel. 943-50 91 69

BOSCH
Service

Bosch Car Service

Autos Zumaia

Gasolina injezioa
Diesel injezioa
Elektrizitatea/Elektronika
Piztea

Balaztak, ABS, ESP
Mantentze mekanika
Motorraren mekanika
Hozte sistemak

Urola plaza 3-5 Tel. 943-86 14 85
autoszumaia@bosch-bcs.com

AXA

943-53 03 97
688 71 26 21
Kantauri 2, behea
aseguruak.zumaia@agencia.axa.es

finés, frantses, hungaria, ingeles, espagnol, suediar, suomi, baske, katalan, finlandiar, frantses, ingeles, katalan, frantses, castelano, finlandiar, ingeles, baske, katalan

Bakun
ITZULPEN ETA ARGITALPEN
ZERBITZUAK S.L

San Isidro, 25 tel./faxa 943-14 83 06
20749 Arroa bakun@euskaibnet.net

Basadi
albaitaritza

Albaitaria
Itxaki Garmendia

Basadi, 7, behea • tel. 943-14 33 10
veterinaria@basadiclinivel.com
www.basadiclinivel.com

Golez: 11-13 / Arriatxalez: 16-19:30 / Astelehen goizean eta larunbatetan itxita
Larrialdetarako: 605 72 87 07 Etez etveko zerbitzua

BASUSTA
erretegia • asador

José Blázquez

Patxita Etezarreta, 25 Tel.: 943-86 20 73
20750 Zumaia (Gipuzkoa) 943-86 04 38
asadorbasusta@hotmail.com

EDU
ZUMAIAKO
OPTIKA

Txomin Agirre kalea, 6
20750 Zumaia, Gipuzkoa
943-14 30 57
www.eduoptika.com

RPS 18/16

LITZE

EGOKI

Erloju
eta bitxi denda

E. Gurrutxaga plaza, 6
tel. 943-86 17 87

Ezohiko hirukotearen kirol kluba

Zumaiarrek egiten dituzten kirol zerrenda luzearen barruan badira batzuk nahiko ezohikoak direnak. Hain justu, Maddi Iraola, Oier Sarasketa eta Julen Mateos herrian hain zabaldua ez dauden kirol horietako hirutan lehiatzen dira: eskiazailea da lehenengoa, xake jokalaria bigarrena eta motozalea hirugarrena.

Goi mailako kirolari profesional ugari eman dituen herria da Zumaia. Esparru anitzetan, gainera, eta haien eredia jarraitzeko itxaropenarekin futboleant, eskubaloian, surfean, zesta puntan edota arraunean aritzen diren gaztetxoak ere ehunka dira. Halaber, badira herrian maite duten kiroleko erreferenterik izan gabe gorenera iristearekin amesten dutenak ere. Azken horien adibide dira Maddi Iraola (Zumaia, 2007), Oier Sarasketa (Zumaia, 2010) eta Julen Mateos (Zumaia, 2010). Eskian, xakean eta motoziklismoan lehiatzen dira, hurrenez hurren.

Hirurek etxekoan bitartez ezagutu zituzten ume-umetan gaur egun egiten dituzten kirolak: Iraolak, esaterako, 3 urterekin jantzi zituen eskia lehenengoz. Alde horretatik, azaldu du eskiatzen ezagutu zutela elkar gurasoek, eta txiki-txikitik eraman zituztela anaia eta biak. Are gazteagoa zen Mateos lehen aldiz motor batera igo zenean; moto elektrikoa zen, eta 2 urte baino ez zituen; gasolina bidezko minimotoa, berriz, 4 urte zituela oparitu zioten. Aitaren pasioa hartu du oinordetzan: "Aita ikusita zaletu nintzen motoaz, eta probatutakoan, oraindik eta gehiago gustatu zitzaidan". Beste

Testua: **Jabi Gonzalez Toston**. Argazkia: **Arnaitz Rubio Aprea**.

LEHIAN DARAMATEN DENBORA APURREAN EMAITZA BIKAINAK ERDIETSI DITUZTE

HIRUREK ETXEKOEN BITARTEZ EZAGUTU ZITUZTEN UMETAN EGUN EGITEN DITUZTEN KIROLAK

biak baino zertxobait nagusiagoa zen Sarasketa xakeko piezak mugitzen hasi zenean: "6 urte nituenean, etxean zegoen xake taulak arretea eman zidan. Ez nekien zer zen, eta aitari galdetu nion. Berak erakutsi zizkidan arauak eta mugimenduak", oroitu du.

Hirurak oraindik oso gazteak dira, baina etorkizun oparora dute aurretik; izan ere, lehian daramaten denbora apurrean emaitza bikainak erdietsi dituzte. Hiruretan zaharrena, Iraola, bere adineko Espainiako txapeladuna da eslalom erraldoian. Horrez gain, beste bi modalitatetan ere lehiatzen da, eslalom arruntean eta super erraldoian, eta horietan ere emaitza bikainak lortu ditu. Azkenengo modalitatean, adibidez, podiumeko hirugarren kuxara igo zen martxoan Baqueira Bereten (Katalunia) jokaturako Espainiako eski txapelketan.

Mateosek, berriz, zapora mikatzeko txokolatzeko domina jantzi zuen Espainiako Txapelketan, Minimoto 85 kategorian. Lau lasterketatan puntu gehien biltzen dituenak irabazten du txapelketa, eta zumaiarrak gertu izan zuen podiuma, baina laugarren geratu zen azkenean. Hori bai, Gaztela eta Leongo (Espainia) txapelketa irabazi egin zuen, zazpi lasterketa jokatu puntu gehien lortu zituen izan baitzen.

Sarasketak, azkenik, zortzigarren amaitu zuen bere adineko Espainiako Txapelketa, baina laugarrenarekin berdinduta. Horrek, 12 urtez azpiko Munduko Xake Txapelketa jokatzeko nahikoa puntu lortzea ahalbidetu zion, eta hala, irailean bi aste pasatu zituen Georgian gurazorik gabe; asko gozatu zuela esan du, baina aitortu du, aldi berean, azkeneko apur bat "luzea" egin zitzaiola. Edonola ere, oso gustura dago bizitako esperientziarekin. Emaitzari baino gehiago, jokaturako partidetan erakutsitako mailari erreparatu izan dio beti xake jokalarik gazteak, eta munduko txapelketako lehen partidetan nahiko urduri aritu bazen ere, gerora partida txukunagoak jokatu zituen eta argi du ikasteko balio izan diola.

Iraola ere eraman du bere kirolak Europan zehar bidaiatzera, baina lehiatzeko baino gehiago, entrenatzeko: "Txapelketa bakarria jokatu dut Espainiatik kanpo, Andorran izan zen, eta txapeladunorde geratu nintzen. Frantzia, Suitza edota Austria ere eskiatu dut". Austriako azken bidaiari hori, hain justu, Espainiako selekzioarekin egin zuen hamazazpi orduko bidaiari eginda furgonetan. Oraindik gaztegia da selekzioak deitua izateko, baina gertuko segimendua egiten ari zaizkio.

Hori gutxi balitz, egunotan ere atzerrian dabil. Zehazki, Suedian eta Norvegian ari da eskiatzen Aragoiko (Espainia) errendimendu altuko CETDI programaren barruan, eta harekin joan diren eskiatzaileetako batzuek, adinez zaharragoak direnak, hainbat txapelketatan hartuko dute parte; zumaiarrak, ordea, oraindik ezin du, horretarako ere gaztegia da, eta entrenatu baino ez da egingo. Dena den, aurki iritsiko zio nazioartean lehiatzeko aukera, eta amorratzen dago, nahiz eta badakien oso zaila izango dela aurkariak menderatzea "atzerrian hemen baino askoz maila handiagoa dagoelako".

Mateos ez da motorrarekin atzerrian izan, baina berak ere asko mugitu behar izan du txapelketetan parte hartzeko. Halabeharrez, zeren, Euskal Herrian, apenas antolatzen dituzten. Entrenatzeko ere





Maddi Iraola. UTZITAKOIA

IRUDIAK GARRANTZI HANDIA DU KIROL MUNDUAN, ETA ZUMAIAR GAZTEENTZAT EZ DA SALBUESPENA

herritik irten beharra izaten du; Nafarroara jotzen dute normalean aitak eta biak autokarabanan. Hilean bitan joan ohi dira, eta batzuetan ama eta anaia ere animatzen zaizkie. Azken hori ere aritu zen motorrean, baina dagoeneko utzi du; "ez zuen oso gustuko", azaldu du motozaleak.

Eskiatzailearen anaiari ere gauza bera gertatu zitzaion, utzi egin zuen nahikoa motibatzen ez zuelako. Halaber, Iraola bera ere egon zen uztekotan: "Hasieran ez nuen batere gozatzen, eta 8 urte nituela, argi nuen utzi egin nahi nuela, baina beste talde batean sartu ninduten, eta iritziz aldatu nuen. Ordura arte, txikiagoak ziren haurrekin nengoen taldean, eta aspertu egiten nintzen". Gerora, lesio larri batek ia behartu zuen kirola uztera: hiru ebakuntza egin behar izan zizkioten belaunean.

Mateosek bezalaxe, Iraolak ere nahitaez mugitu behar du herritik eskiatu ahal izateko. Ondorioz, eski estazioak zabalik daudenean Jakan (Aragoi, Espainia) finkatzen du bizitokia. Hala, ikasturteko bigarren hiruhilekoa bertan egiten du oso-osorik. DBHko lehen mailan hasi zen, eta "oso gogorra" egin zitzaion eskolak gaztelaniaz

jasotzera ohitzea. Beste bi hiruhilekoak, berriz, Zumaian egiten ditu, baina eskola-ordu dezente galtzen ditu lehenengoan.

Sarasketa da hiruretan arazo gutxien dituenaren xakean aritzeko, *online* zein klubeko kideen aurka jokatzen duelako. Horrez gain, astean behin Fabian Fiorito entrenatzaile argentinarrarekin izaten du hitzordua. *Online* aritzen dira ordu eta erdiz. Aurrez entrenatzaile zarauztarra eduki zuen, eta hark gomendatuta hasi zen Fioritorekin, eta asko ari da ikasten. Harekin duen hartu-emanen gaztetxoak jokatutako txapelketak ere aztertzen dituzte; izan ere, entrenatzaileak zuzenean ikusi ezin baditu ere, partidetan egindako mugimenduak txostenetan jasotzen dira.

Dagoeneko erakusleihoan

Irudiak gero eta garrantzi handiagoa du kirol munduan, eta hiru zumaier gazteentzat ez da salbuespena. Mateosi aitaren lagun batek kudeatzen dizkio sare sozialak eta motozaleak korritutako lasterketetako irudiekin elikatzen ditu. Iraolari ere gero eta gehiago eskatzen diote babesleek argitalpenak maizago egiteko sareetan. Horrez gain, podiumera igotzen den bakoitzeko babesten duten etxeetako markak ongi erakusten ditu. Azken finean, ezinbestekoa du laguntza hori, zeren hiru modalitatetan lehiatzen denez, eski jakin batzuk behar ditu bakoitzerako, eta oso garestia da materiala. Babesleek erdi prezioan uzten dizkiote publizitatearen truke.

Sarasketak ere badaki zer den publizitatea egitea: munduko txapelketan parte hartu ahal izateko, bidaia finantzatzeko babesle

bila aritu zen aita, eta halako batean, lortu zuen gastuak ordaintzeko behar adina diru. Trukean, bideo bat grabatu behar izan zuen Sarasketak Georgiatik.

Tarte gutxi beste kiroletarako

Xakeaz gain, futbola ere egiten du Sarasketak; atezaina da, eta oso gustuko du hori ere. Horregatik, batzuetan zaila egiten zaio bi kirolak uztartzea; azken finean, gerta dakioke asteburu berean futbol partida eta xake txapelketa izatea. Hala tokatu zaionean, zirt edo zart egin behar izan du, eta batzuetan xakea lehenetsi du, eta besteetan, futbola. Ez du nahi bataren edo bestearen artean aukeratu beharreko ordua iristerik.

Iraolak ere egin izan du beste kiroliek eskiaz harago. Zehazki, balleta eta gimnastika erritmikoa, baina dagoeneko utzi ditu. Belauneko lesioak bultzatu zuen beste bi kirolak utzi eta eskiaren aldeko hautu bakarra egitera. Kontrara, Mateosek ez du motozirkismoa ez den beste kirolik buruan. Motoekiko zaletasun hori kritikatu ere egin izan diote Mateosi lagunek: "Bizitza arriskatzen dudala esaten didate, eta ez duela zentzurik. Nik badakit, ordea, probatu ez dutelako esaten dutela hori".

Horrez gain, egiten duena kirola denik ezbaian ere jarri diote: "Motoan eserita gidatzen dudanez, esaten didate ez naizela nekatzen, baina hori ez da horrela. Azken batean, abiadura handian zoazenean, indarra egin behar duzu motoa mugitzeko". Hari beretik, Sarasketak ere entzun behar izan du xakea ez dela kirola, baina berak argi du: "Kirola ez da fisikoa bakarrik, mentala ere bada".

Eskia kirola denik inork gutxik ukatu dio Iraolari; halere, inoiz aurpegiratu diote egiten duenak ez duela zailtasunik. Eskiatzaileak jakin badaki, ordea, lortu dituen emaitzen atzean zenbateko lana dagoen. Gustukoa egiten ez dutenik, behintzat, ez die aurpegiratuko inork. ■■■



Julen Mateos. UTZITAKOIA

Oier Sarasketa. UTZITAKOIA



Denboraren tolesturetan ahaztutako auzoa

Bost urte daramatza martxan Estazio Aldeko Auzokideen Elkarteak. Auzoko bizi kalitatea hobetzeko proposamen zerrenda prestatu du denbora honetan, baita udalean aurkeztu ere, oraingoz, emaitza handirik gabe. Bizilagunak orain beldur dira Torreagako lursailean egingo diren etxebizitzek ez ote duten auzoko egoera oraindik are gehiago okertuko.

Testua: **Juan Luis Romatet**. Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea**.



Ehunka lagun igarotzen da egunero Estazio auzotik. Treneko joan-etorria egitera geltokira joaten direnak asko, baina baita auzoan bertan, erriotik hurbil dagoen industrialdeko enpresetan lan egiten dutenak ere. Bertatik pasatzen diren auto eta kamioiei Euskotreneko kotxeretatik ateratzen diren autobusak ere gehitu behar zaizkie, erakunde publiko honek tren geltokitik hurbil ditu-eta bere lokalak eta garajeak. Trafiko horri guztiari espaloi falta gehitzen bazaio, arriskutsua ere suerta daiteke bertatik pasatzea eguneko une batzuetan. Etorkizun hurbil batean, gainera, Torreagako etxebizitza promozioako obrak hasiko dira urte askoan hutsik egon den lursailean. Auzokideak beldur dira lan horien ondorioz sortuko den kamioien joan-etorriak auzoko arazoak gehiago areagotuko dituela.

Arazo horien berri emateko gutun bat argitaratu zuen Estazio Aldeko Auzokideen Elkarteak pasa den irailean *baleike.eus* webgunean. Abuztuaren 24an emakume bat zendu zen auzoan istripu bat izan ondoren. Heriotza hark bultzatuta egin zuen oharra publiko elkarteak, "auzoaren egoera negargarriari buruzko gogoeta ozen bat" partekatzeko, baita "auzoarentzako espazio bizigarri eta erosoan aldarrikapena" ikusarazteko ere.

Lagun Artea jatetxean jarri dugu gaiaz jarduteko hitzordua elkarteko kideekin. Manuel Esnalek eta Miren Laskibarrek 1970. urtean zabaldutako jatetxea da auzoan geratzen den ostalaritzako establezimendu bakarra. Garai batean, orain ez aspaldi, Udabe taberna ere zabalik zegoen beheko kalean, Txepetxa elkartearen alboan, orain urte batzuk itxi zuten arte. Tren geltokiak berak ere

Torreagako etxebizitza promozioa hartuko duen lursaila.



Amaia Garcia, Puri Tena, Alfonso Garcia, Miguel Jimenez eta Joseba Esnal, Estazio Aldeko Auzokide Elkarteko kideak, elkarrizketako une batean.

izan zuen kantina bere garaian, Vascongados (gaur egungo Euskotren) treneko geltoki zaharrean. Tabernak bakarrik ez, jangai denda ere izan zuen Estazio auzoak bere momentuan, baita butano bonbonak gorde eta saltzen zituen lekua ere. Auzoan antolatzen zituzten festak ere, sanpankrazioak, ez dira gaur egun ospatzen. "Eta hori Zumaia festa onenetakoak zirela", Puri Tena auzokidearen esanetan.

Azaroko arratsalde euritsu bat da eta jatetxera bidean tren geltokiko tuneletik atera berri

den jende andanarekin topo egiten dugu: heldu berria da Donostiatik irten eta 17:00etan Zumaiaara heltzen den trenea, eta aterki azpian gordeta ekin diote herritar askok etxerako bideari; goiz partean, ateri zegoenean, etxetik atera direnak, berri, blai eginda helduko dira etxera. Manuel eta Mirenen seme Joseba Esnalek darama jatetxea, eta han dira dagoeneko elkarteko kide batzuk, kazetaria eta argazkilaria noiz helduko zain.

"Estazio auzoa ez da orain gauden lekua bakarrik; Estazioa bada, baita ere, beheko kalea, Larretxeren baserria edota Egurkoko etxebizitzak ere", dio Amaia Garciak. Estazioan hasi eta hezia, auzotik kanpo bizi da gaur egun, baina oraindik ere etxea du bertan, Estazioan. "Horregatik, elkartea sortu genuenean, erabaki genuen gunee bakoitzeko ordezkariak izan behar zituela. Estazioa ez da eta beheko kalea bakarrik; Estazioak inguru hau dena hartzen du". Berekin batera dira bileran Puri Tena, Alfonso Garcia, Miguel Jimenez eta Joseba Esnal elkarteko kideak. Bakoitza auzoko gunee desberdin batean bizi da edo egiten du lan.

Estazio Aldeko Auzokideen Elkartea orain bost urte sortu zuten, 2017. urtean. "Orduko alkateak, Oier Kortak, auzokideekin bildu nahi zuela esan zigun", du gogoan Joseba Esnalek. "Beheko kalea oinezkoentzat bihurtzeko proposamena ekarri zigun, eta galdetu zigun ea bizilagunak piboteak jartzearen alde egongo ginen. Proposamen hori besterik ez zuen ekarri", jarraitu du Alfonso Garciak. Bilera hartara auzokide ugari bertaratu zirela diote. "Bakoitzak bere aldetik eskaerak egin baino, pentsatu genuen egokiagoa zela elkartzea, hala gure eskaerak sendotasun handiagoa izango zutelako". Esan eta egin. Behin elkartea erregistratu ondoren, eskaeren zerrenda bat osatu zuten, eta inkesta bat ere egin zuten auzokideen artean haien iritziak jasotzeko. "Eskaera horiek udalean aurkeztu genituen eta azpimarratu genuen bizilagunen artean egindako galdetegi baten emaitza zela".

Auzoak dituen gabezien erradiografia bat bezala ikus daiteke galdetegi horren emaitza. "Herriko beste auzuneetan egindako urbanizazio lanen ondorioz Estazioa baztertuta geratu da. Hori

hasieratik esan genuen. Herriak aurrera egin du eta gu atzean geratu gara”, dio Alfonso Garciak. Iritzi berekoa da Amaia Garcia. "Aurreko alkateari eta gaur egungoari esan izan diogu azken 30 edo 40 urteetan hemen ez dela inbertsio bat bera ere egin. Esan genion, baita ere, inguruko auzuneetan egindako lanek ez dutela kontuan hartu Estazioa. Aitzuriko etxeak egin zituzten Estazioa kontuan hartu gabe; saihebidia ere egin zuten Estazioa kontuan hartu gabe. Horren guztiaren errematea Torreagan egingo dituzten etxebizitzak izango dira. Hainbeste urte daramatzagu, urte madarikatu hauek guztiak, eta Josebak esaten duen bezala, hemen ez dute paperontzi bat bera ere jarri", dio Amaia Garciak hasperen eginez. "Saihebidia azpiko pasabidea egin zutenean ere ez zuten altuera kontuan hartu, eta hondakinak jasotzeko kamioiak edo suhiltzaileenak ez dira pasatzen", xehatu du Puri Tenak, eta elkarteko beste kideen iritziekin bat egin du.

Abandonoa da hizketaldian zehar behin eta berriz errepikatzen duten hitza. Estazioko bizilagun bezala "abandonatuta" sentitzen direla diote behin eta berriz. "Alfonsoak aipatu duen galdetegi horretatik atera genuen konklusioa hori izan zen. Eta berdin zioen nork esaten zuen: 40-50 urtez auzoan bizi den batek edo etorri berria denak, guztiek zioten abandonatuta sentitzen zirela. Herriko beste auzoak –Jadarre, San Jose, Larretxo– berritzen doaz pixkanaka, azpiegitura berriak egin dituzte han-hemenka, eta hori oso ondo iruditzen zaigu, baina gurean ezer ere ez, gurean ez da ezer ere egin", dio gogaituta Amaia Garciak.

Iritzi berekoak dira elkarteko beste kideak ere. "Dioguna da gurea ez dela herriko auzo bat solik. Estazioak industrialde bat ere badu, auzotik jende pila bat pasatzen da, ez bertakoak bakarrik, baita beste leku batzuetakoak ere. Eta ez zaio duen garrantzia ematen".

Denborarekin lorpen txiki batzuk ere izan dituztela nabarmendu dute. "Elkarte bezala hasi ginenean zailtasunak izan genituen gure eskaerak aintzat hartzeko. Hori aldatu da denborarekin eta lortu dugu, esaterako, ordenaziotik kanpo zeuden hiru eraikin ordenazioaren barruan sartzea. Bi geratzen dira oraindik, eta ikusiko dugu zer egin daitekeen haiekin. Auzotik igarotzen diren kotxeen abiadura jaisteko proiektu bat ere erakutsi digute, eta uste dugu hori laster egingo dutela". Lanketa edo ekintza horiek positibotzat jotzen dituzte, baina elkarteko ordezkariak uste dute auzoak aktuzio integral bat behar duela. "Auzoko baldintzak zertxobait hobetuko dira, baina, azken finean, txaplata batzuk besterik ez dira: auzoko eta auzotarren bizi kalitatea ez da hobetuko horrela", azpimarratu du Alfonso Garciak.



Egurkoko etxebizitzak ere Estazio auzoaren parte dira.

ESTAZIOKO BIZILAGUNEK "ABANDONATUTA" SENTITZEN DIRELA DIOTE

ESTAZIO ALDEKO AUZOKIDEEN ELKARTEA ORAIN BOST URTE SORTU ZUTEN, 2017. URTEAN



Pertsona bat zendu zen abuztuan Estazioan izandako istripu baten ondorioz. Lore sorta batek gogoratzen du gertaera istripua izandako lekuan.

Galdetuta zer proposamen zehatz jasotzen diren Udalean aurkeztutako zerrendan, batzuk aipatu ditu: "Auzorako sarbideak zabaldu daitezke leku guztietan. Gaur egun dauden aldapak desagerrarazi eta horrekin arazoak ekidin daitezke. Berdeguneak sor daitezke auzoan, gaur egun ez daudenak. Auzo honetan haurrak eta ume txikiak egon dira eta hogeitaz herriko beste leku batzuetara joan behar izan dute, auzo honetan jolas egiteko lekurik izan ez dutelako. Dugun industrialdea bizitzeko modukoa izan daiteke; udan hortik paseatzen bazara erre egiten zara. Kanpina badugu, bidean komunak egon daitezela hara doazenek beraien eginbeharrak egiteko. Autokarabanak egon behar badute, hondakinak botatzeko guneak egon daitezela".

Etxe berriak, baldintza hobekuntza?

Torreaga fundizio zaharrak utzitako lekuan eraikiko dute 206 etxebizitza berriko promozioa, baina oraindik zehaztu gabe dago data. Etxebizitza horietatik 102 libreak izango dira, 52 babes ofizialekoak eta beste 52 tasatuak. Promozio hori egiteko, Zumaiako arau subsidiarioak aldatu behar izan ditu udalak. Urrian egindako ohiko bilkurak eman zion oniritzia aldagatari. Bost etxebizitza blokez osatuko da promozioa, eta aldagatua handia

ekarriko du auzora, gaur egun sastrakek eta putzu osasungaitz batek okupatzen duten lursail bat birmoldatuko duelako.

Etxe berriek auzora hobekuntzarik ekarriko ote duten galdetuta, Estazio Aldeko Auzokideen Elkarteko kideek ez dute itxaropen handirik. "Beti ere agindutakoaren zain egon behar dugu, eta kasu honetan agindutakoa da etxebizitza berriak egingo dituztela Estazioan, eta horrek hobekuntzak ekarriko dituela auzo guztira. Gertatzen dena da etxebizitzaren eraikuntza horrek ez duela gure egoera hobetuko, ez du auzoaren egoera inola ere hobetuko; etxebizitza berri batzuk izango ditugu, baina auzoak bere horretan jarraituko du", dio Alfonso Garciak.

"Berrehundik gora etxebizitza berri egingo dituzte, baina gaur egungo sarrera eta irteerarekin jarraituko dugu", gogoratu du Joseba Esnalek. "Bi gauza eskatu genituen udalean: batetik, ea lehen etxebizitza blokea zertxobait mugi zitekeen, horrela errepidea zabaltzeko; bestetik, atzealdeko errepidea, erriaren alboan doana, irekitzea ere eskatu genuen, saihesbidearekin bat egin eta hala auzoak beste irteera bat izan zezan. Bi eskaerei ere erabateko ezezkoa eman zieten", salatu du Alfonso Garciak. "Ez dugu eskatzen etxe hauek ez egiteko, irisgarritasuna hobetzeko baizik. Bai hemen bizi garenontzat, baita etorriko direnentzat ere", jarraitu du Puri Tenak.

"Etxebizitza berri hauekin arazoa areagotu egingo da", uste du Miguel Jimenezek. "Auzoan oso espaloi gutxi daude, eta daudenak hala moduzkoak dira. Trafikoak okerrera egingo du obrek irauten

duten denboran, jende gehiago ibiliko da, eta, esaten duten bezala, enpresa batek Egurko hartzen badu, horrekin kamioien eta autoen joan-etorria handitu egingo da", gaineratu du.

"Azken finean, hamarkada batzuk dituen auzoa da, eta dituen zerbitzuak zaharkituak geratu dira. Ez dugu inongo komun publikorik, ez dugu espaloirik, ez dugu aparkatzeko lekurik, ez dugu ezer. Autobusek, kamioiek eta tren hartzera doan jendeak bat egiten dute hemen. Auzorako sarrera eta irteera orain 50 urteko bera da, eta hori ez da posible. Zaharkituta geratu da dena; Zumaian denak egin du aurrera auzo honek izan ezik", dio Amaia Garciak penatuta. "Denbora da auzotik kanpo bizi naizela, baina etxea dut hemen, eta gustatuko litzaidakeena da Estazioa izatea denontzako erakargarria den auzo bat. Zortea eta dirua duen gazte bati galdetuko bazenio non bizi nahiko lukeen, ez luke Estazioa aukeratuko. Inork ez du Estazioan bizi nahi, baina baldintzak hobetuko balira, jendeak hona etortzeko interes gehiago izango luke".

Tren geltokiari lotutako auzoa

Trenari edo, hobeto esanda, trenari lotutako auzoa da Estazioa. "Oker handirik gabe, esan genezake Estazioa trenak ekarri zuela, auzoa ere trenari lotutako bagoia izan zela. Baten faltan, gainera, urte gutxitan bi trenbide elkartu ziren Zumaian: Vascongadosa (gaur egun Euskotren) eta Urolakoa", jasotzen du Imanol Azkue Ibarbiak *Zumaia, izena eta izana* liburuan.

Vascongados trenaren eraikitzeko lanak 1898an heldu ziren Zumaiara, eta hiru urte geroago, 2001eko urtarrilaren leian, inauguratu zuten geltokia. Urolako trenaren lehen proiektuak XIX. mende amaierakoak ziren, baina 1926ra arte itxaron behar izan zuten trenbidea inauguratu ahal izateko. Tren geltokia bakarrik ez, Moilaberria ere urte hartan inauguratu zuen



Auzoko aldapetako bat. Atzean, Euskotreneko autobusen kotxerak.

Alfonso XIII.a erregeak. Trenarekin batera, zumaiarrek Estazio aldera egiten zuten joan-etorriak ugaritu egin zirela dio Azkuek liburuan, eta garai batean, geltokia herrigunetik urruti zegoela eta autobus "urbanoa" ere egon zela gogoratzen du.

Bidea eta Estazioa egon aurretik inguruan oso etxe gutxi izango zirela dio liburuaren egileak, eta Mendarajauregi eta Larretxe

baserriak aipatzen ditu, besteak beste, ordurako auzoan izango ziren etxeen artean. Denborarekin auzoa hedatzen joan zen etxe berriekin, eta lehen industriak ere kokatu ziren auzoko bi aldeetan, baina, bereziki, erriotik hurbil.

Hurrengo hamarkadetan, etxe edo inguru hartan kokatutako industria batzuk bota egin zituzten N-634 errepedearen saihebidetako egiteko. ■■■

Garbitu, saneatu, gorde

Juan Jauregi Urbietak, desinfektatzailea

Desinfekzio lanetan aritzen den Desin-lan enpresak hiru hamarkada beteko ditu datorren urtean. Intsektuak akabatzen eta enpresak eta lokalak desinfektatzen aritzen da Juan Jauregiaren enpresa, baina azaldu du gozamen handiena egurrezko teilatu, zoru eta altzari zaharrak saneatzen eta berritzen sentitzen duela.

Testua: **Juan Luis Romatet**. Marrazkia: **Irene Irureta eta Karmele Gorroño**.

Juan Jauregi Urbietak ia 30 urte daramatza desinfekzio munduan lanean. Ikasten ari zela, Juan gazteak ez zuen pentsatu ere egingo sektore horretan lan egingo zuenik handik urte batzuetara. "Nik makina-erreminta ikasketak egin nituen. Bost urtez aritu nintzen hori ikasten Zarautzen, eta Ayra Durexen [gaur egungo GKN Driveline Zumaia] lan batzuk ere egin nituen. 1990ean, Golkoko gerra zela eta, hogeiki langile kaleratu zituzten, horien artean neu. Urtebetez egon nintzen langabezian. Denbora batez soldadura lanak egin nituen Itziarko Irusa galdarategian, baina desinfekzioaren inguruko ikastaro bat zegoela ikusi nuen, atera egin nuen, eta gaur arte", kontatu du Jauregik.

1967an jaio zen Juan Jauregi, Oikian. "Berez, Beduan jaio nintzen, baina Oikiara eramaten duen aldean; aitona han zuen baserria. Beste aitona bat San Migelekoa zen; amona, berriz, erriorearen beste aldekoa. Errioren elkartzen ziren biak. Orduan ez zegoen zubirik, eta aitona batel bat erabiltzen zuen erriorearen beste aldera pasatzeko". "Oikiarra naiz, baina neure burua zumaiartzat daukat; Zumaian bizi naiz, eta

lanerako edo etxea erosteko orduan, beti Zumaiara jo izan dut", gaineratu du.

Gaur egun Oikian dauka Desin-lan enpresak bere egoitza; sortu, baina, Zumaiaiko Paolaldean sortu zen. "1993an zabaldu nuen Baltasar Etxabe kaleko lokal batean. Urtebete egin nuen han. Itsasgorarekin ura komunetik sartzen zitzaidan, arazo hori nuen. Urtean bitan edo gertatu zitzaidan". Hori ikusita, lekuz aldatu zuen enpresa, Larretxo auzunera. "Han beste lauzpabost urte egin nituen, errentan. Oikiako lokal hau garbitzera etorri nintzen, ikusi nuen hutsik zegoela, eta jabeari esan nion erosiko niola. Hitz egingo genuela erantzun zidan. Pentsatzen nuen ez zidala berriro kasurik egingo, baina, halako batean, deitu egin zidan. Solairuarterkoak, pladurra jartzea... dena neuk egin nuen. Udaleko aparejadorea etorri zen, paperak sinatu zizkidan, eta aurrera".

Desinfekzio lanak egiten ditu Jauregik, hiru arlotan banatuta. "Batetik, pipiekin eta termitekin egiten dut lan; zoruen kasuan, berriz, leundu, tratamendua eman, eta gero bernizatu egiten dut; azkenik, habe eta teilatuekin, pipiak jandako lekuetako azala kendu eta gero tratamendua



irrimarra



ematen diot". Altzari zaharrekin ere lan egiten duela azaldu du. "Tamainaren arabera *baineran* sartzen ditut [fabrikako gela batean duen altzairuzko edukiontzia], edo, kabitzen ez badira, pistolarekin ematen diet tratamendua".

Enpresen desinfekzio lanak ere egiten dituela kontatu du Jauregik. "Aurrez prestatutako jakiak egiten dituzten enpresa batzuetara, esaterako, hilean behin joaten naiz. Buzoa jantzi, eta dena desinfektatzen dut. Hurrengo egunean lanera itzultzen direnerako prest egoten da lokal hori".

Intsektuak akabatzea izaten da hirugarren lan nagusia. "Labezomorroak, txindurriak, arratoiak... Lan horiek jatetxeetan nahiz etxe partikularretan egiten ditut. Kanean, ez. Udal batzuetatik deitu izan didate, baina ezin dut lan hori egin. Horretarako hiru edo lau lagun behar dituzu, eta ni bakarrik nago". Lan karga handia badu ere –elkarrizketa egin bitartean telefono dei dezente jaso ditu–, lanean bakarrik jarraitzen du. "Neu naiz buruzagia, baita langilea ere", esan du, barrez.

Arratoiak aipatzean normala da halako higuin sentsazioa izatea. "Jendeak galdetzen dit ea ez ote diedan nazkarik; pentsatzen dute arratoiz inguratuta ibiltzen naizela, eta justu kontrakoa da: nik ez dut arratoirik ikusten. Horiek ilunpetan ibiltzen dira, zaratarik ez dagoenean, baina ni egunez joaten naiz. Non dabiltzan jakiten dut, eta han jartzen dut pozoia; horrek gauez egiten du efektua. Arratoi bat edo beste ikusiko nuen, baina seguru zuk gehiago ikusi dituzula kanean", azaldu du.

Egurra gogokoen

Mota askotako lanak egin behar izaten ditu, baina gustukoena egurrarekin lan egitea du. "Etxeatiko estruktura kontuekin lan egitea dut gustukoan", esan du Jauregik, egindako lan batzuen argazkien

bila sakelakoan hasi bitartean. Gogoan ditu egin dituen lan batzuk. "Zuloagarren etxean egin nuen lan orain lauzpabost urte. Teilatua egin nien, altzariak ere desinfektatu nizkien, baita zorua leundu eta tratamendua eman ere. Zer ez zuten etxe hartan! Gustura geratu ziren egindako lanarekin, eta diploma bat ere oparitu zidaten".

Zarauzko Torre Luzean egindako lanarekin ere pozik ageri da. "Orain zortzi edo hamar urte izango zen. Bilboko enpresa batetik deitu zidaten. Beheko solairuan banku bat ere bazegoen, eta etxe osoan egin nuen lan. Bedua jatetxean ere egin nuen lan. Bertakoa izanda, gainera, berezia izan zen. 800 urteko baserri zaharrean lan egiteak barrenak mugitzen dizkizu", aitortu du.

Altzari zaharrekin lan egiten gozatzen duela ere onartu du. "Antigoaleko altzari zaharrak lantzeak poza ematen dizu. Amonaren bat etorri izan zait familiako kutxa zahar batekin. 'Hau nire amonaren amonaren amonarena zen', esan zidan. Pipiak jandakoa desinfektatu bakarrik ez, berrizatu ere egiten ditut, lehengo pintura

Juan Jauregi Urbieta

- **Adina:** 55 urte.
- **Ikasketak:** Lanbide Heziketako makina-erreminta ikasketak.
- **Lanbidea:** Desin-lan enpresako burua eta desinfektatzailea.
- **Desinfektatzailea ez banintz...** Musikaria, baina ez dakit instrumenturik jotzen. Hala ere, amestea libre da.
- **Lanetik ateratzean gogoko dut...** Lehenbizi, telefonoa itzaldu; eta, gero, buelta bat eman, paseatu, garagardo bat hartu terraza batean... Hori saria da.

zaharrak kendu, argizaria eman. Andrea hain pozik zegoen emaitzarekin... Horrek niri ere poztasuna eman zidan".

Oraindik landu gabeko edota lanketa prozesuan dauden altzariak ikus daitezke Desin-lanek Oikian duen lokalean, beste mila erreminta, tramankulu eta tratamendurako poteen artean. Josteko makina baten altzari zaharra erakutsi du. "Zati bat guztiz janda zegoen, eta berria egin nuen zaharraren formak mantenduta". Tratamenduko baineratik pasatu ondoren, lehortze fasean zegoen jabearen eskuetara itzuli aurretik.

Abenduan, San Jose Komentuko altzari eta bestelako objektu batzuk izango ditu esku artean. "Bergarako arkitekto batzuek egin dute eraberritze proiektua, eta, kasualitatez, haietako baten etxean aritu nintzen lanean. Abenduan ekarriko dituzte altzariak eta bestelakoak hona. Pixkanaka ekarriko dituzte, zortzi edo hamar altzari txanda bakoitzean, denak ezingo ditut eta batera egin. Presa handirik ez dago, lanek bi urte iraungo dute eta", esan du oikiarrak.

Zarautzen, Bergaran, Andoainen, Orendainen –azken horretan, esaterako, baserri oso bat

tratatu behar du hamabost egunez... Zumaiako mugetatik kanpora ere egiten du lan.

"Batzuetan deitu didate lan baterako eta harrিতa geratu naiz: 'Nondik deitu didazu? Non dago hori?'. Desinfekzio lanetan aritzen den enpresa askorik ez dagoela azaldu du oikiarrak, eta beste etxe batzuek lan egiteko beste era batzuk dituztela ere nabarmendu du. "Gipuzkoa osoan ibili naiz, baina Ondarroa ingurura ere joan izan naiz. Hango igeltseroek ezagutzen naute, eta badakite nola egiten dudan lan. Bilbora ere joan izan naiz, arkitektoen batek deituta, baina arazoak izan ditut kobratzeko orduan, eta ez naiz gehiago joan; *ijito* asko dago kontratisten artean", damu da Desin-laneko burua.

Lan motei baino gehiago, aldaketari ematen dio Juan Jauregik balioa. "Astebete edo gehiago aritu zaitezke lan berean, eta agian enkargu bat jasoko duzu lokal bat edo jatetxe bat desinfektatzeko. Horrek aldaketa dakar, eta aldatzea ona da. Aspertzeko denborarik ez dut izaten; gauza batean ez nabilenean, beste batean nabil", amaitu du Jauregik. ■■■



NON DAGO BALEIKE?

Baleike pertsonaia aldizkariaren zein orrialdetan dagoen ezkutatuta aurkitu behar da, eta erantzuna aldizkaria@baleike.eus e-posta helbidera bidali abenduaren 16a baino lehen.

Saria: TIPITAKin bi lagunentzat gosari eder bat. Baleikeko Komunikazio Taldean bazkide izatea da baldintza bakarra.

325ko Baleike aldizkarian Baleike pertsonaia non ezkutatuta zegoen asmatu behar zen: 34. orrialdean zegoen ezkutatuta, eta **Ihintz Linazisoro** bazkidea izan da irabazlea.

Tipita

BALEIKE

IZAN KA

BALEIK

ALOKAGAI
321213 123
SALGAI

HOTZIKAR
TOKIKO MERKATARITZ

IRAKUR ZALE!

LURRARI ETA
NATURARI LOTUTA

S BAT AURRERA



BALEIKE

Erditu du
sarea

ABBAREKIN
MERRIA DANTZAN



EGIN BAZKIDE ETA %30 EKO
DESKONTUA IZANGO DUZU

bazkide@ukt.eus • 943-81 38 41

BALEIKE

LAGUNTZAILEA:



Gipuzkoako Foru Aldundia



Txupetea Olentzerori oparituko diogu!



MIREIA CENTENO

PSIKOLOGOA

Gabonak ailegatu dira. Familia asko Olentzerori bisitan joaten zaizkio Gabon gaueko opariak eskatzeko, eta, bide batez, haurtxo askok beraien txupetea oparitzen diote, betiko uzteko asmoz. Gero, askotan, falta sumatu, eta etxera ailegatutakoan berriro eskatzen dute, egin dutenaz damututa.

Ez da erraza haur batentzat bere txupetea uztea. Orokorrean, helduok asko gutxiesten ditugu haurren beharrak, eta honekin ere, hori gertatu ohi da. Gurasoak arduratzen gaituen gai bat da, dentistek eta logopedek argi esaten dutelako txupetea denbora luzez erabiltzeak epe luzerako kalteak ekar ditzakeela hortzen garapenean, baita ahoskeran ere.

Txupetea erabiltzeak onurak baditu, eta, horregatik, guraso gehienek haurtxoekin erabiltzen dugun tresna bat da. Hala ere, txupetea erabiltzea edo ez erabiltzea baino gehiago, horri ematen zaion erabilera hartu behar da kontuan.

Txupetea atxikimendu objektu bihurtzen da.

Haurtxoaren eta txupetearen artean lotura bat sortzen da, sendoagoa edo ahulagoa erabiltzen dugun moduaren arabera. Lotura motaren arabera, errazagoa edo zailago izango da haurrarentzat txupetea uztea. Haurraren hainbat behar asetzeko erabiltzen da: batez ere, kontaktu beharra eta titia edo biberioia hartzeko beharrei lotutakoa. Hainbat arrazoigatik haurraren beharrak ezin ditugunean behar bezala ase, horiek txupetearekin ordezkatzeko ditugu. Adibidez: goseak dago, baina aitarekin dago eta ama oraindik ez da ailegatu lanetik titia emateko; edo aulkitxoan doa, euria ari du eta negarrez hasten da besoetan hartzea nahi duelako, baina ezin dugu gelditu hartzeko.

**EZIN DITUGUNEAN ASE
HAURRAREN
BEHARRAK BEHAR DEN
MODURA, TXUPETEAZ
ORDEZKATZEN DITUGU**

Horrelakoetan, txupetea eskaintzen dugu. Haur batzuek gehiago erabiltzen dute, beste batzuek gutxiago. Zenbat eta behar gehiago ordezkatu, orduan eta menpekotasun handiagoa sortuko da.

Eta, orduan, noiz kendu txupetea? Hasteko, haurra lasai dagoen garai batean kentzea komeni da. Etxe aldaketa bat egon bada edo neba txikia jaio bada, hobe pixka bat itxarotea. Eta, nola kendu? Haurrak duen loturaren arabera. Haurrak lotura handia badu, pixkanaka hasiko gara, eta kentzen diogun tarte horietan, behar hori gure kontaktuarekin eta presentziarekin betetzen badugu, hobeto. Beraz, hasteko, etxean elkarrekin gaudenean, poltsikoan gorde edo apalean utzi daiteke. Kanean jolasean gabiltzanean, berdin, eta eskolan familiarizazio prozesua bete badu, baita ere. Hala, pixkanaka, gero eta gutxiago beharko du. Gogoratu txupetea kentzen diogun momentu horietan guztietan arreta gehiago beharko duela eta arreta hori eman behar diogula. Azkenik, bai! Olentzerori oparitu! ■■■

bertako -REKIN BAI!

igogailuak | ascensores

OROTARIKO ZERBITZUA

100€-tik/hileko

GIPUZKOA

943 903 450

www.bertako.eus

- Baietz mantentze-lan profesionalari
- Baietz benetako 24/7/365 zerbitzuari



Joan-etorria

Horra tren: goian badao, eta behean badator. Aurki itzazu bien artean dauden aldeak. Hamar dira guztira.



ZORRO HONEN JABEAK AGERIAN DITU HORTZAK



HONEN JABEA EZ DA GAZTEA



ZORRO HONEN JABEARI LAU HORTZ IKUSTEN ZAIZKIO




POLTSA HONEN JABEAK EZ DU BETAURREKORIK



ZORRO HONEN JABEA IKAZKIN EZAGUNA DA



ZORRO HONEN JABEAK BETAURREKOAK DITU




HONEN JABEAK AHOA ZABALIK DU



POLTSA HONEN JABEAK LEPOKOA DU

Bakoitzari berea


Pertsona hauek denek ekipajea galdu dute tren-geltokian. Eman bakoitzari berea.



Handienetik txikienera

Ordena itzazu tren-gidari kapelu hauek handienari 1 zenbakia, hurrenari 2 eta txikienera 8 emanaz.

Sudokua




Trenari BULTZI ere esaten zitaion lehen. Ba al zenekien? Osa ezazu sudokua, BULTZI hitza osatzen duten hizkiekin (B, U, L, T, Z eta I). Hizki bakoitzak behin agertu behar du lerro, zutabe eta area bakoitzeko.



Itzala

Ui... Trena galduko duela ematen du, baina zein da bere itzal zuzena?



Margotu

Hona hemen tren zahar bat. Dena margotu baino lehen, marraztuko dizkiozu: 1) ke beltz zikina. Tximiniatik gora ezkererantz doa. 2) Bi txantxangorri zorabiatuta. 3) Gidariaren burua leihoan, bisera eta guzti. 4) Zure gustuko animalia (zakurra, elefantea...) kabinako teilatuaren gainean.

Soluzioak ikusteko:
www.plazanbazan.eus/

Unai Roman Eizagirre Isasti

ARGAZKIA: ARNAITZ RUBIO APREA

Unai Roman Eizagirre Isasti naiz. Bai, Unai Roman naiz, gure kontuak... 1983ko martxoaren 24an jaio nintzen Zumaian, Larretxo auzoan. San Telmo kalean bizi naiz orain. Informatika denda batean egiten dut lan, baina musikaria ere banaiz.

Musikatik bizitzearena nik neuk, behintzat, orain arte ez dut ikusi. Musikatik bizi nahi banu, gainera, ez nuke egingo gaur egun egiten dudan musika mota hori. Saltzeko errazagoa den zerbait egiten saiatuko nintzateke. Dendan bezalaxe: nik saltzeko moduko gauzak erosten ditut. Guk geure gustuko kontuak egiten ditugu.

Niretzat eta nik ezagutzen ditudan musikarientzat ihesbide bat da musika. Lanetik irten, entsegu lokalean sartu, jo, eta ahaztu egiten zara beste guztiaz.

Musika Eskolan oinarrizkoa ikasi genuen: Sonsolesek *La de la mochila azul* eta halakoak erakutsi zizkigun. Gu gustura joaten ginen. Gitarra espainiarra jotzen genuen harekin, eta gero *Bururekin* hasi ginen elektrikoa maniatzen. Bat-batean izugarrizko aldaketa izan zen. Iban Rubio, Aritz Paredes eta hirurok joaten ginen. Arratsaldeetan joaten ginen, eta Buru ez zegoenetan, topera jartzen genuen bolumena, nork zarata gehiago atera.

Lauzprobost talde izan ditut. Itaka izan zen lehenbizikoa; hor hasi nintzen gitarra jotzen, gero bateriari ekin nion. Got-ham taldean, berriz, gitarra jotzarekin batera abestu egiten nuen. Atzera Itakara itzuli nintzen berriz, eta gero, Voltaia Zumaiaiko taldea sortu genuen. Baxua eta ahotsa nintzen ni. Eta orain, Ezpalak taldean.

Talde bakoitzarekin zerbait ikasten duzu. Ezpalak taldean, esaterako, norbaitek eraman

behar izaten du furgoa eta beste norbaitek itzuli behar izaten ditu hitzak ingelesera. Banatu egin behar izaten dira ardura horiek, ezin dituelako pertsona bakar batek bere gain hartu. Sare sozialekin, zer esanik ez. Nik ez neukan Instagram konturik Ezpalak taldean hasi nintzenean, eta orain erabiltzen ikasi dut. Sare sozialak eguneratu ezean, atzean gera zaitezke. Eta Instagram modaz pasatzen denean, beste zerbait etorriko da, eta ikasi beharko dugu hori ere.

Ezpalak sortu genuenean guk hamasei urterekin entzuten genituen abestiei keinu bat egin nahi izan genien, eta uste genuen ez zuela inork entzungo. Harrera ona izan zuen. Gainera, guk primeran pasatzen dugu hori grabatzen eta zuzenekoetan. Kuadrillako batek esan zidan, adibidez, irratian askotan jartzen dutela. Poza ematen dute halakoek. Beste batek, berriz, Donostiako Dabadaba aretoan emango dugun kontzerturako sarrerak erosi dituela. Ezpalakekin jotzen duguna lagunaren gustukoa izateak pozten nau.

Disko berria atera dugu orain: *Hotz aina hots*. Saiatzen gara gauza desberdinak egiten. Donostiako Gartxot musikariari galdetu genion, artista hutsa delako halako hitz jokoak eta egiten, eta hori proposatu zigun. Gustatu zitzaigun, eta horixe jarri genion. Betikoa egin dugu bilduma honetan ere, baina buelta bat gehiago ematen saiatu gara, soinu hobe eta dezan. Lehengoaren lerro beretik dator, baina hark lirika gehiago zeukan, eta hau gogorra da.

Zuzenekoetan jotzea da onena. Estudioan urduritu egiten zara, akatsak egoten dira, presaka ibiltzen gara, kableren bat izzoratzen da... Beti aldrebestu egiten da. Zuzenekoetan, berriz, egin duzun lan hori guztia solte uzten duzu.

Nekatzen du furgonetan leku batetik bestera ibiltzeak, baina gustuz egiten dugu. Herrialde Katalanetan izan gara, Italian... Eta bai, nekatuta itzuli gara, baina kontentu ere bai. ■■■



PUBLIZITATEA

ekin
elektrotiketa, s.l.

Erribera kalea, 6 20750 Zumala tel. 943-14 30 97
ekinsl@ekinsl.com www.ekinsl.com

**Instalazio elektrikoak
Telekomunikazioak
Informatika
Internet**

mara **MÁSMÓV.L**

**ERNIO
TABERNA**

V. Arrate, 3 Tel. 943-86 00 45

Entz
Informatika

ORDENAGAILUAK · MUGIKORRAK ·
KONPONKETAK

Behoko plaza 943-14 33 95

Garoa

Carlos Cintero - Ainhoa Olaizola
tel. 943-86 21 81
Txomin Agirre, s/n
20719 ZUMAIA (Gipuzkoa)

GLENCOE
INGELES AKADEMIA

TALDE MURRIZTUAK

Zunbilo kalea, 12 beheha
tel. 670 39 17 77

matrikulazioa dohainik!

Ikastegi homologatua

Golden Gate
institute
hizkuntz eskola

Erribera kalea 1 bis, beheha
tel./faxa 943-86 50 20
info@goldengateinstitute.com

Gure-Txokoa
aberna

Upela plaza, 4
20750 Zumala
Tel.: 943-86 09 70

Harvest
English School

...eta udaran Ingalaterrara ingelesa praktikatzera
www.academiarharvest.com

San Jose, 11 bis tel. 943-14 33 34

ilarzi

Alai auzategia, 2
Tel. 943-24 50 20

**INPERNUPE
ELKARTEA**

Erribera kalea 16. Tel. 943-86 15 23

Iriondo optika
Optometria - audio zentroa

Kantauri plaza, 8. Zumaila. tel.: 943-86 04 86
Nagusia, 53. Azkoitia. tel.: 943-85 19 84

IRUDI OTS

Ikuskizun orotarako soinua
eta argiztapen alokairua
Hots eta irudigintza aretoa

tel. 943-63 16 32 irudiots@irudiots.com

IRUITZ
ileapaindegia

Analisi kapilarrek eta
tratamendu
personalizatuak

San Telmo 12 943-86 07 60

**ORRAZTEGI
ZUMAILA**

943-86 20 83

KABI Patxita Etxezarreta, 15
943-11 74 27

TABERNA

JUARISTI
jagetxea

Arrainak eta haragiak aukeran
Eguneko menua
Jangela klimatizatua

Basadi auzategia, 10 tel. 943-05 05 77

Kaithermik S.L.

Arotzeria metalikoa
Aluminiozko leihoak ZTHrekin,
PVCzkoak eta mistoak

Santiago auzoa, 20 Tel./faxa: 943-86 03 20

Zumaiako adierazpena. Ondare geologikoa garapeneko baliabide iraunkorren aldeko apustua

Urriaren azken astean berrogeita bi lurraldetako 140 aditu bildu ziren Zumaian Nazioarteko Geologia Zientzien Elkartearen 60. urteurrena ospatzeko. Ondare geologikoa babestu beharko genuke, kultur ondarea edo ondare biologikoa babestu beharko genukeen arrazoi beragatik, daukaguna gehiago errespetatzera eramango gaituelako.

Nahiko adiera berria da; izan ere, duela hogeitazero arte, ondare geologikoaren kontzeptua ez zen ia existitzen; orduan, ondareztat hartzen zen herentzia kulturala eta biologikoarekin zerikusia zuen guztia. Orduan, IUGSek (Geologia Zientzien Nazioarteko Elkarteak) beharrezkotzat jo zuen batzorde berri bat eratzea eta nazioartean garrantzia duen ondare geologiko hori ezagutarazteko jarraibideak, estandarrak eta irizpideak zehaztea. Eta duela urte batzuetatik hona, Unescorekin elkarlanean ari da, munduko ondare izan nahi duten geoparkeen ondare geologikoaren kalitatea ebaluatzeko.

Elementu geologikoak ondare gisa ulertzeak esan nahi du gizarte gisa balioa ematen diogula eta, beraz, gorde egin nahi ditugula. Ondare geologikoko lekuak Lurreko sistemak nola funtzionatzen duen ulertzen laguntzen diguten lekuak dira. Biziak edo klimak historian zehar nola funtzionatu duen ulertzen laguntzen diguten tokiak dira, eta ezinbestekoak dira hurrengo hamarkadetan izango ditugun ingurumen erronka nagusiei nola aurre egin aztertzeke. Dauzkagun baliabideak eta sistema sostengatzaileak, Lurra sistemak, nola funtzionatzen duen ezagutzen ez badugu, ezin dugu behar bezala planifikatu ingurumen, gizarte edo lurralde

Testua: **Asier Hilario Orus.**
Geoparkeko koordinatzaile
zientifikoa. Argazkiak: **Euskal**
Kostaldeko Geoparkea.



okupazioko edozein politika. Oso erronka garrantzitsuei buruz ari gara, hala nola ura izatea, material berriak, mineralak... Eta horrek guztiak zerikusi handia du geologiarekin, substratuaren ezagutzarekin. Orduan, leku horiek ezagutarazi eta babestuz gero, Lurra sistemak nola funtzionatzen duen jakin dezakegu, baita sistemak behar bezala aurrera egiteko nola funtzionatzen duen jakin ere. Hori da Zumaiako Adierazpenak jasotzen duena.

Ondare geologikoaren garrantzia etorkizuna aurretik jakiteko

Zumaiako Adierazpena Geologia Zientzien Nazioarteko Elkartearen deklarazio bat da, gure ondare geologikoa zaintzearen garrantziari buruzkoa. Mende hau gizateriaren historiako benetako une bat da eta komunitate geologikoak bere ikuspegia eman nahi du. Zumaiako Adierazpena IUGSek sinatutako ikuspegia da, batez ere, baina munduko elkarte geologiko nagusiek bermatua; komunitate



geologikoak Lurraren zientziek etorkizunean ditugun erronkei aurre egiteko moduan duten zereginari buruz duen ikuspegia da: klima aldaketa, biodibertsitatearen krisia, uraren eskuragarritasuna eta kudeaketa, mineralen eta baliabide berrien eskuragarritasuna eta kudeaketa, edo ekosistemen degradazioa... Eta deklarazioa sinatu dugunok, benetan egiten ari garena ez da horiek guztiak zaintzearen aldeko apustua soilik, toki horiek ezagutaraztera eman nahi ditugu. Izan ere, ezagutzen direnean, benetako garrantzia ematen zaie, eta horrek lagundu egiten du lekuak zaintzen eta hezkuntza jardueretarako erabiltzen. Beraz, horixe dio deklarazioak. Hori garrantzitsua da, eta arrazoiak ere ematen ditu zergatiaz.

Oinarritzko ikerketaren alde egitearekin ere badu zerikusia. Geologiako eta beste edozein zientziatako oinarritzko ikerketa funtsezkoa da sistemak nola funtzionatzen duen ulertzeko. Izan ere, sistemak nola funtzionatzen duen ulertzen dugunean, aurrea har

IUGSren kongresuan parte hartu zuten lagunak, Itzurunen egindako amaiera ekitaldian.



Ane Zabaleta eta Asier Hilario, kongresuaren amaiera ekitaldiko aurkezleak.

dezakegu, nola erreakziona dezakeen jakin dezakegu eta hori oinarrizko ikerketaren bidez egiten da. Beraz, oinarrizko ikerketaren eta 100 leku horien bidez ondare geologikoaren aintzatespenaren aldeko apustua ere bada; mundu osoan ukiezinak izan beharko luketen leku geologikoak badirela, gizateriak ondareztat, balioztat, hartu behar dituenak.

IUGSek zeregin garrantzitsua du Lurra gaur egun jasaten ari den aldaketari dagokionez, bereziki klimaren arloan. Geozientifikoaren komunitate bat da, eta ondoen prestatutako zientzialariak dira Lurraren historia ezagutzeko, historian zehar nola funtzionatzen duen

jakiteko eta gaur zer gertatzen den ulertzeko. Geozientifikoek Lurraren historia ikusi eta prozesua uler dezakete, eta itsas mailarekin, klima aldaketarekin, biosferako aldaketekin eta abarrekin datorrena aurrean dezakete. Eta IUGS geozientifikoaren komunitatea jakintza eta informazio hori komunitate zientifikoaren eta publiko orokorraren artean zabaltzen ari da. IUGSko ondare geologikoaren batzordearen helburua da maila globalean garrantzi zientifiko handiena duten lekuak identifikatzea eta ezagutaraztea, tartean Zumaiaiko flyschak.

Zumaiaiko flyschak, zergatik?

Atzean duen bibliografia begiratze hutsak leku honek duenaren informazio pixka bat ematen du: nazioarteko lehen mailako 200 argitalpen baino gehiago ditu, batez ere azken hamarkadetan, baina aspalditik hemen egindako 20 doktore-tesitik gora daude... Adituen arabera, agian planetako tokirik aztertuenetako bat da. Eta hori horrela bada, zerbaitengatik da. Horren arrazoi nagusia da Zumaia, ziurrenik, munduko lekurik onena dela Lurraren historiako aldi jakin bat ulertzeko, gutxi gorabehera duela 70 eta 50 milioi urte bitartekoa. Gertaera interesgarri eta garrantzitsuak izan ziren, hala nola dinosauroak Kretazeoaren amaieran desagertzea edo Lurraren historiako klimaren berrotze gertaera handienetako bat duela 56 milioi urte. Hemen izan genuen zortea da itsaso tropikal baten azpian geundela, une jakin hartan oso lasaia, eta 20 milioi urte horietan gertatu ziren ingurumen aldaketa guztiak zehaztasun handiz jaso zituela itsas hondoko sedimentazioak.

Orduan, Lurraren historiari buruz edo bere historiaren zati bati buruz sekula idatzi den libururik onena da. Oso letra onez idatzita dagoen liburua da, eta, gainera, tradizio zientifiko osoagatik, geologoen mineral horiek, fosil horiek, geruza horiek, geometria

GEOLOGIAKO IKERKETA FUNTSEZKOA DA SISTEMAK NOLA FUNTZIONATZEN DUEN ULERTZEKO

KOMUNITATE GEOLOGIKOAK BERE IKUSPEGIA EMAN DU GIZA-HISTORIAKO UNE HONETAN

horiek... deszifratzen jakin dute, ezagutza bihurtzeko. Gogoan dut behin Miguel Delibesi entzun niola beretzat hau gizakiak pentsatzeko duen gaitasunari monumentu bat zela, gai izan ginelako arroka geruzak uler dezakegun liburu baten orrialde bihurtzeko.

Beraz, geologia ondarea eta geodibertsitatea ardatz duten ekimenen eta nazioarteko organo guztien arteko lankidetzak aitortza zabalagoa emango dio, ondare hori hezkuntza baliabide iraunkor gisa erabiltzea sustatuko du eta, bereziki, hobeto kontserbatzen lagunduko du, gizartearen eta etorkizuneko belaunaldien onerako.

IUGSren lehen 100 geologia ondarearen interesguneak

kontsultatzeko: www.iugs-geoheritage.org

Zumaiako Adierazpena: <https://geoparkea.eus/eu/geoparkeari-buruz/proiektuak/iugs-globalgeosites/zumaia-declaration>



Markel Olano ahaldun nagusia, Arantxa Tapia sailburua eta Iñaki Ostolaza alkatea plakaren aurkezpenean.

Idoia
ARDOTEGIA

Julio Beobide, 2
943-57 49 86

PUBLIZITATEA

MAIAUR
ZUMAIA

Julio Beobide, 2 • Tel. 943 862 269  

CROISSANTERIA

pizzak
hanburgesak
bokatak...

marina

Baltasar Etxabe, 2 Tel. 943-86 22 46

Maximus **PENCIL**
estudio decoración

Julio Beobide, 2 - ZUMAIA
699 49 52 56
maximuspencil@gmail.com
Deitu edozertarako, aurretiko hitzorduekin egiten dut lan


MENDI - ONDO s.L.
Elektrizitatea

Urola plaza, 21 tel. 943-86 00 74 - 943-86 15 69
mendi-ondo@mendi-ondo.com www.mendi-ondo.com


NOIA S.L.
TAILERRAK ETA
KARROZERIAK

Elengabeko garabi zerbitzua **636 86 78 12 (Zumaia)**
609 83 44 38 (Itziar-Deba)

Hego kalea, B3 (Estazioan) Itziar Induriguenea, C
20750 - Zumaia 20820 - Itziar-Deba
Tel.: 943-86 13 63 Tel.: 943-60 62 91
zumaia@carroceriasnoia.com noia@carroceriasnoia.com
www.carroceriasnoia.com


LIDEN
eraikuntzak eta arkitektura

bizkaia kalea 13, zarautz
678 875 652/ 943 905 983
lur@olidenreformas.com
www.olidenreformas.com

OSA
BERNIZATUAK

Zoruen kutxialaketa eta bernizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 • tel. 943-86 14 12 • 686 36 41 49


OSTOLAZA

OSTOLAZA ZUMAIA, S.L.

Joxe Mari Kortia Induriguenea, A1 - 4. pab. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel. 943 86 50 68 • Fax 943 86 13 45
www.ostolaza.com • e-mail: osto@ostolaza.com

Ostolaza
altzariak

Tel/Fax: 943-86 13 25
Julio Beobide Ibiltokia, 1 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
mueblesostolaza@euskalnet.net / www.mueblesostolaza.com


SOLOZABAL
autoeskolak

Etxezarreta, 19 • 943-861416
zumaia@solozabalautoeskolak.com

Bertako elikagaiak - Osteopatia - Psikologia zerbitzuak
Psikomotritizitatea - Naturopatia
www.sura.eus

Sura
ZAINZA
OINARRIAN

Patxita Etxezarreta 17 • 688 71 85 38

Talaxia
taberna • jatetxea

Santiago auzoa, 4 Tel. 943-14 33 70


Tapaia
Taberna

Eribera kalea
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
tel. 943-86 19 73

TTAKUN TABERNA



Izustari, 3
tel. 943-86 52 89

TXIMISTA
garagardotegia

Ogitartekook
Plater konbinatuak
Txerri-ukondak (kodilloa)
Saltatxak, oilaskoak...
Garagardoak aukeran

Ondarraz plaza, 4 beheko - Tel. 943 573 905


UKENDU
PARABOTIKA
BELARDENDA
Aitziber Etxeberria Garro
Farmazialaria

Kantauri plaza, 2 943-86 09 92 www.ukendu.com

UZKUDUN
taberna



Eusebio Gurrutxaga plaza, 10 - 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel.: 943-11 63 97

Lapurreta

TESTUA: IMANOL AZKUE IBARBIA
@ImanolAzkue

ILUSTRAZIOA: DANIEL CARBALLO
OSTOLAZA

Dokumentu luze eta eder bat ekarriko dugu gaur XIX. mendeko bizimoduaren berri emateko. Epaiketa batekoa da, eta balio du ikusteko nola bizi ziren orduan zumaiarrak, zer lanbide zeuzkaten, nola mugitzen ziren batetik bestera... Euskara ere agertuko zaigu, batzuetan ia oharkabean, beste batzuetan nabarmen agerian.

Josefa Antonia Olaizola alargunak denda zeukan Goiko plazan, udaletxearen ondoan, *Patxikaandienekoa* bezala ere ezaguna, telak, zapatak eta abarrekoak saltzeko, eta lapurreta egin zioten 1816ko irailaren 21aren eta 22aren arteko gauean. Gero deklaratu zuenez, denda ondo itxita eta txukun zegoela ziurtatuta joan zen ohera 22:00ak aldera. Goizean jaiki eta atarira jaitsi zen ur bila, eta hara non ikusi zituen arropa batzuk lurrean botata eta dendako leihoak zabalik. Seme-alabei deitu zien oihuka, esnatzeko eta jaisteko, eta denda herriaren erdigunean zegoenez, segituan inguratu ziren herritar gehiago ere, zer gertatzen zen ikustera. Lapurte egin zieten, eta Jose Manuel Alzolaras alkate eta epaileak, Juan Bautista Urbieta idazkari

hartuta, ofiziozko autoa hasi zuen lapurreta argitzeko.

Dendaren jabeak, Josefa Antoniak, bazekien salgaiak lapurte zizkietela, apalak hutsik utzi zituztelako, baina ez zekien zehatz-mehatz edo seguru zer, alabak, Maria Barbarak, ekarri ohi zuelako normalean jeneroa, eta haren deklarazioan zehazten da zer falta zitzaien. Maria Barbarak dio lau edo bost egun lehenago Baionan izan zela salgaien bila, Zumaiatik itsasontziz joanda, eta Bilbotik ere material ugari zeukala ekarrita, tartean "dos piezas de maón con raias blancas la una y la otra con azules, de lo que gastan las mujeres en este país para saias y delanteles, y las denominan con el de **mantalquia**"¹, eta horra hor euskarazko hitz bat, erdarazko testuan ia ezkutatuta, mantalak egiteko gaia adierarekin. Amaieran, ohi bezala, eskribauak deklarazioa irakurri zion Barbarari, berresteko, baina amak bezala, Maria Barbarak ere ez zuen sinatu,

LAPURRETA BATEK AUKERA EMAN DIGU ORDUKO HERRIKIDEEN BIZIMODUAREN BERRI IZATEKO

"porque dijo no sabía escribir". Beste herritar batek, Jose Ramon Etxezarretak, baieztatu egin zuen Maria Barbarak jeneroa ekartzearena, hauxe adierazi baitzuen deklarazioan:

"Que el día nueve de este mes llegó el testigo a la ciudad de Bayona en Francia embarcado en una lancha de este puerto en compañía de Barbara de Mancisidor, hija de la insinuada Josefa Antonia, y otras muchas personas de este Pueblo, y la Mancisidor con el objeto de comprar géneros o telas para la tienda de su madre como en efecto hizo muchísimas compras"².

Amaieran sinatu ere egin zuen Etxezarretak, ikasketaduna baitzen, frantsesez ere bazekiena.

Manuela Ignazia Egañak ere deklaratu zuen, alkatearen aurrean. Okina zen, eta adierazi zuenez, 03:30ean jaiki zen ogia egitera joateko eta ez zuen ikusi ezer arrarorik dendaren kanpoaldean, paretik pasatu zenean. Deklarazioaren amaieran, berresteko unean, hauxe dago idatzita: "Que lo depuesto es la verdad por el juramento que lleva prestado en la que **habiéndosela leído en lengua bulgar vascongada** se afirmó ratificó y no firmó por que dijo no sabía escribir"³.

Hau da, deklarazioa itzuli egin zion euskarara eskribauak, uler zezan, gaztelaniaz ez zekielako.

Agintariek jakin ahal izan zutenez, lapurretako egunean Zarautzik gizon bat eta emakume bat pasatu ziren goizeko orduetan, "con fardos crecidos", eta alkateak ofizioa bidali zien Zarautz, Orio, Usurbil eta inguruko beste herri batzuetako alkateei, lapurretaren berri emateko eta informazioa eskatzeko; halaber, bi gizon izendatu zituen argibide gehiago jakitera joateko, baita bidali ere lapurren atzetik.

Bi gizon haiek Jose Manuel Manzisidor eta Manuel Egaña ziren; lehena, 17 urtekoa, Josefa Antonia dendariaren semea zen, eta bazekien zer jenero lapurtu zieten, komeni baldin bazen ere; bestea, berriz, alkatearen konfiantzakoa zen, 37 urtekoa. Biek, elkarrekin, hurrengo egunotan lapurren arrastoari jarraitu zioten, zakurrek ehizari nola, ustezko lapur haiek jeneroa saltzen joan baitziren pasatzen ziren lekuetan: Zarautzen, Aian, Bidanian, Goiatzen, Ikaztegiatan, Legorretan... Azkenean, Ordiziako azokan atxilotu zituzten, Seguran arropak eta telak saltzen aritu ondoren Tolosa aldera abiatzekotan zirenean, eta preso hartuta, bi militarrek lagunduta, Zumaiara eramanean zituzten, kartzelara.



Atxilotuak Josefa Berridi eta Josef Alberro ziren. Deklaratu zutenez, senar-emazteak ziren, emakumea 30 urte ingurukoa eta Andoaingoa; gizona, berriz, 45 urte ingurukoa eta Hernanikoa. Gizona lanbidez arotza zen, eta ezkonduz geroztik, salerosketan aritzen ziren elkarrekin, herriz herri, Gipuzkoatik Galizia arteko eremu zabalean jeneroak erosi eta gero saldu: bakailaoa, txokolata, tabakoa, arropa


erabilia eta berria... Gizona oso zaildua zen, zenbait gerratan Frantzian eta Ingalaterran preso egona, ingelesez eta portugesez hitz egiteko ere moldatzen zena. Biak elkarrekin Donostiatik iritsi omen ziren itsasontziz Zumaiara (baina lekukoek gero ukatu egin zuten hori), eta Bilbo aldera joan behar omen zuten oinez, herritar batzuei adierazi zieten, "alas cobranzas del haber que tenía dicho Josef por



razón de las mesadas y del tiempo que anduvo en los corsarios"⁴, baina beste deklarazio batean ukatu ere egin zuen hori, eta esan inoiz ez zela ibili "en las lanchas cañoneras". Epaileak galdetu zion Josefa Berridiri zer egin zuen aurreko egunetan, nondik nora ibili ziren, eta hark adierazi zion Bizkai aldera joanak zirela, baina ez zela akordatzen herrien izenez, ahaztu egiten zitzaizkiolako, eta

handik bueltan joan zirela Ordiziara. Saltzen ari ziren jeneroez galdetuta, ea nondik atera zituzten, Josefak hau erantzun zuen: "fueron comprados [por] su marido a dos Hombres desconocidos en el monte hacia Guetaria y **no sabe por cuánto, por ser castellanos y no poseer ella este idioma**, ni sabe qué cantidad les dio su marido"⁵. Hitz horiek irakurrita, ordura arteko deklarazio guztia

kolokan geratzen da; izan ere, idatziz gaztelaniaz jasotzen ari ziren Josefaren deklarazioa, eta aitortzen duen bezala gaztelaniaz ez bazekien, pentsatzekoa da euskaraz ari zela hizketan eta eskribaua ari zela itzulpena egiten, euskaraz adierazitakoa gaztelaniaz idatzita jartzen. Amaieran, argi berretsiko du idazkariak berak uste hori: "haviéndola **dado a entender en lengua vulgar vascongada** ala declarante se



afirmó en ella y no firmó por que dijo no sabía escribir"⁶.


Josef Alberrok, gizonak, ere deklaratu zuen epailearen aurrean, eta xehetasun gehiago eman zituen lapurretaren aurreko egunetan eta hurrengoetan egin zutenaz: Zumaiaetik Lekeitiora joan zirela, eta handik bueltan, Getaria eta Zarautz arteko mendian, ezezagun batzuek saldu zizkietela telak, eta haiek hartuta abiatu zirela pixkanaka Aiatik barrena Albizurrera, Legorretara... Seguran jeneroak saltzen aritu ondoren, Ordizian atxilotu egin zituzten.

Dokumentuan, hainbat zumaiarren testigantzak daude jasota, bakoitzak zer ikusi zuen goiz eta gau hartan, zer jenero aurkitu zuen kalean botata, nola eman zien ostatu ustezko lapurrei... Adibidez, Juaquina Beristainek, Azkoin baserrikoak, Alberro eta Berridi senar-emazteak entzun zituen pasatzen baserriaren kanpoaldetik, "y aunque puso la atención por conocerles no pudo, y **solo por el tonillo de hablar en vascuence la pareció serían de Goierri**"⁷. Dendaren nagusiaren, Josefa Antoniaren, deklarazioa ere oso argigarria da, eta haren hitz batzuek Maria Barbara alabak adierazitakoa beste begi

batzuekin irakurtzera eramango gaituzte:

"Dijo: que con el motivo de que antes de ahora ha hecho varios viajes su hija Maria Barbara de Mancidor a Bayona y Bilbao en busca de géneros y con motivo de no saber escribir, **no poseer el idioma castellano** la enunciada Su Hija M^a Barbara no ha tenido la precaución de traer la correspondiente factura de géneros que a solido traer"⁸.

Izan ere, Maria Barbarak deklaratu zuenean, gaztelania hutsean azaldu zuen zer eta zenbatean erosi zituen Baionan... Nola egingo zuen



gaztelaniaz, ez baldin bazekien? Berariaz jasota ez baldin badago ere, pentsatzekoa da euskaraz deklaratu zuela, eta eskribauak fin-fin itzuli zituela gaztelaniara hark euskaraz esandakoak. Beste helduleku bat ere geratuko zaigu agerian: 19 urteko neska gaztea Baiona eta Bilbo hiriburueta joan ohi zen erosketak egitera, gaztelania edo frantses zipitzik ere jakin gabe, baina moldatzen zen, moldatzen zenez, euskaraz hartuko zutelako dendariak edo izango zuelako zeinek itzuli edo lagundu.

Auzi honetan, guztira Zumaiako hogeita bi herritarrek deklaratu zuten, 11 emakumek

eta 11 gizonak; zaharrenak 68 urte zeuzkan, eta gazteenak 17. Herritar arruntak ziren, ez ziren handixkiak edo maila gorenekoak: baserritarrak, okinak, patrioiak, tabernariak, dendariak...; gehienak ez ziren ikasiak edo ikasketadunak, eta gertaera tamalgarri bat zela-eta, horren inguruan zeresana zeukatelako deitu zituzten deklaratzera, eta epaileari azaldu behar izan zioten zekitena. Ofiziozko auto honetan, deklarazioen amaieran, legeak agintzen zuen bezala, adierazitakoa berresteko eta sinatzeko eskatu zien idazkariak lekukoei; hogeita bi lagun horietatik, zortzik baino ez zuten sinatu, eta gainerako hamalauen deklarazioetan "no firmó por que dijo no sabía escribir" edo antzeko formulak daude jasota; horrek esan nahi du ez zekitela idazten eta irakurtzen, baina seguru asko gaztelaniaz ere ez zuten jakingo, edo ez ulertzeko behar adina, behintzat, baten baten deklarazioaren amaieran propio ageri den bezala. Generoaren aldetik begiratuta, oso alde nabarmena dago sinaduretan: emakume bakarrak, tabernaren jabeak, sinatu zuen deklarazioa, eta gainerako hamar emakumeek ez; gizonezkoetan, berriz, zazpik sinatu zuten, eta lauk ez.

Lapurrei dagokienez, epaiketa eginda, errudun deklaratu

zituzten senar-emazteak: Alberrori zortzi urteko kartzelaldia ezarri zioten, "en cualquiera de los [presidios] de África"; Berridiri, berriz, "cuatro años de reclusión en la Real Casa de Galera", hau da, Madrilgo emakumezkoentzako kartzelan.

Lapurreta arrunt baten inguruko dokumentazioak aukera eman digu orduko herrikide batzuen bizimoduaren berri izateko edo hobeto ulertzeko: salgaiak, garraioak, lanbideak, ohiturak... Baina, batez ere, balio digu egiaztatzeko orduan ere Zumaiako euskalduna zela, eta agiria gaztelaniaz idatzita baldin badago ere, behin eta berriz ikusten dugu zumaiarrak euskaraz bizi zirela. Patxikaandienekoaren dendako oihalekin gaztelaniaz jositako kontakizunaren soinekoaren azpian, euskarazko gorputza dago ezkutuan, 35°-37° C artean, bizi-bizirik, eta halaxe ageri da larru-azala bistaratu orduko. ■■■

¹ Zumaiako Udal Artxiboa, 224.02 (5), 1816-09-21.

² ZUA, 224.02 (7), 1816-09-22.

³ ZUA, 224.02 (8), 1816-09-22.

⁴ ZUA, 224.02 (28), 1816-09-28.

⁵ ZUA, 224.02 (17V-18), 1816-09-26.

⁶ ZUA, 224.02 (19), 1816-09-26.

⁷ ZUA, 224.02 (36V), 1816-10-01.

⁸ ZUA, 224.02 (56), 1816-10-14.

OPARITU TOKIKO INFORMAZIOA



bazkide@ukt.eus

B
BALEIKE

K
KARKARA

erlo
ERLO

MAXIXATZEN

UKH
UROLA KOSTAKO
HITZA

UZTARRIA

ZH
ZARAUZKO
HITZA

AGENDA

ERAKUSKETAK

AZAROAK 29-ABENDUAK 10

Gipuzkoako Itxaropen Telefonoa:
Maitatzearen artea.

ABENDUAK 14-31

Distira Argazki Elkarte.

ABENDUA

2 OSTIRALA

Antzerkia: Horman Poster: *Souvenir.*
Aita Marin, 20:00etan.

Bertso afaria: Euskaraldia (Andoni Egaña eta Oihana Iguaran).
Larrainaren eskutik.
Kupela jatetxean, 21:00etan.

13 ASTEARTEA

Ipuin kontaketa: Luisa Carnesen *13 ipuin* liburuz. Irakurri Matte taldea.
Alondegiko Moila gelan, 18:00etan.

14 ASTEAZKENA

Kafe Musikala: Klarinete maratoia.
Valentin Manterolan estudioan, 19:30ean.

15 OSTEGUNA

Zine forum: *Silent night.*
Aita Marin, 19:00etan.

Kontzertua: *Agora*, klarinete maratoia.
Oxford aretoan, 19:30ean.

16 OSTIRALA

Kontzertua: *Hungarian fire*, klarinete maratoia.
Oxford aretoan, 20:00etan.

17 LARUNBATA

Kontzertu-lehiaketa: *Laukoteena*, klarinete maratoia.
Zumaianan, 16:00etan.

18 IGANDEA

Amaierako kontzertua: Klarinete maratoia.
Zumaianan, 12:00etan.

Familia giroan: Gabonetako apaingarriak. LH1-6.
Ludotekan, 17:00etatik 19:30etara.

19 ASTELEHENA

Musika Eskolako ekitaldiak: Trikitilariak eta dantzak.
Otezurin, 18:00etan.

20 ASTEARTEA

Ipuin musikatua: Badut Taldearen eskutik, *Ipuinak jo eta musikak kantatu.* 4-8 urte bitartekoentzat.
Haur liburutegian, 17:30ean.

Musika Eskolako ekitaldiak: Trikitilariak.
San Juan egoitzan, 18:00etan.

21 ASTEAZKENA

Solasaldia: *Gari eta goroldiozko*, Anari Alberdi eta Alex Gurrutxaga.
Liburutegiko ganbaran, 18:30ean.

22 OSTEGUNA

Musika Eskolako ekitaldiak: Gabon aurreko entzunaldia.
Aita Marin, 17:30ean.

23 OSTIRALA

Kontzertua: ZUMB Musika Banda, *Disney eta musika.*
Zumaianan, 18:00etan.

24 LARUNBATA

Niño Jesusen Eskean.
Eguerdia bitartean.

Olentzerokin kantuan eta Gomezagoren etorrera.
Odietan hasita, 12:30ean.

Gabon Koruaren saioa.
Kalez kale, 17:30ean.

Gabon kanten lehiaketa. Erkibe kultur elkarteak antolatuta.
Eusebio Gurrutxaga plazan, 17:30ean.

yoana ✂
ileapaindegia

Amaia plaza,
2 behea
943-14 32 78



Zalla 

- plater konbinatuak
- ogitartekoak
- oilasko erreak

Urdin Plaza 3 • 943-86 23 81 ZUMAIA

ZUMAIA 

AUTOESKOLA

Basadi, 12 / 943-86 10 18 / zumaiaautoeskola@hotmail.com

Erlojuaren tik-tak itogarria Getarian



72 ORDU

Egilea: Kepa Iribar
Argitaratzailea: Erein
Argitaratze urtea: 2022
Orrialdeak: 200
Generoa: narrazioa (genero beltza)



TESTUA: ANTTON PEÑALBA

Kepa Iribar kazetari getariarrak idatzitako liburua da *72 ordu*. Kirol kazetaritzan egiten duen lanagatik da ezaguna; oraingoan, ordea, literaturara egin du salto eta bere lehen liburua eskaini digu: misteriozko eta tentsiozko eleberria, irakurlearen arreta erakarriko duen thrillerra.

Idazleak azaldu zuenez, eleberriaren sormen prozesua "jolas baten gisa hasi zen", duela hiru urte. Bi elementuk abiatu zuten lana, Iribarren esanetan. "Alde batetik, ez dugu Juan Sebastian Elkanoren bizitza ezagutzen; izan ere, XVI. mendean ez zen ohikoa horrelako dokumentuak idaztea, eta bestetik, nazioartean ezezaguna da Elkano, eta ingelesa izan balitz, 'ziurrenik' Hollywooden film bat egingo zioten". Premisa horretatik abiatuta sortu du Iribarrek kontaketa: filma eta Elkanoren balizko egunerokoa. Eta bi elementu horiei heriotza-mehatxua gehituta eraiki du genero beltzeko istorioa.

2022ko irailaren 6a. Juan Sebastian Elkanok munduari

bira eman ziola 500 urte betetzen diren eguna. Ospakizun handia antolatu da Getarian. Baina hilketa mehatxu batek hankaz gora jarriko du festa atariko lasaitasuna. Dena da prestatze lana, baina, bat-batean, mehatxu bat jasoko dute udaletxean. Talde txiki batek baino ez du mehatxuaren berri izango. Hor hasiko da ikerketa, ikerketa paraleloa: batetik, Idoia Urdaneta, herriko zinegotzia, eta bere lagun Aitor Letamendia detektibe pribatua ariko dira; eta, bestetik, ikerketa ofiziala izango dena, Ertzaintzak abiatuko duena. Biek ala biek mehatxatzailea atzematea izango dute xede.

Narrazioaren eszenatokiak ere badu bere garrantzia. Erein argitaletzeko ordezkariak aurkezpenean adierazi zuenez,

**DENA DA PRESTATZE
 LANA BAINA,
 BAT-BATEAN,
 MEHATXU BAT JASOKO
 DUTE UDALETXEAN**

liburua irakurtzen duenak "beste liburu bat ere" irakurriko du, "bere herriaren maitale batek irakurleei herria maitatzen erakutsiko diena". Izan ere, narrazioan autoreak uda garaiko giroa deskribatzen du (txibien arrantza, hondartza giroa...), eta Getariako lekuei eta kontuei erreferentzia egiten dieten hitzak (hala nola, *Pia-Pia*, *Txoritonpe* eta *Artzape*, edo *erromona* eta *keleparioa*) eta festa beraren deskribapen zehatzaren kronika ere eskaintzen die irakurleei.

Ezin esan liburu biribila denik Iribarren lehen eleberria. Trama artifiziala da, eta pertsonaiek ez dute sakontasunik. Hala ere, Getariako geografia eta historia ezagutzeko erreferentzia asko ditu, eta, gainera, oso modu errazean irakurtzen da; azken minutu eta segundoraino mantentzen du tentsio narratiboa.

Beraz, Gabonetako oporretan eserialdi batean irakurtzen goxatzeko moduko liburu dibertigarria izan daiteke *72 ordu*. ■■■

Gaixotasun mentalak



ANDER INTXAURRONDO

Osasunaren Mundu Erakundearen azken datuek diotenez, buruko gaixotasunak nabarmen hazi dira azken urteetan, eta depresioa eta antsietatearen kasuan igoera % 25eraino ere irits daiteke. Kezkatzeko modukoa.

Baina, zer dira nahasmendu edo gaixotasun mentalak? DSM eskuliburuaren arabera — Diagnostic and Statistical Manual of Mental Disorders, diagnostiko psikiatrikorako erreferente nagusia—, oinarritzko prozesu psikologikoetan (motibazioan, kontzientzian, kognizioan, pertzepzioan, sentsazioetan eta beste prozesu askotan) eragiten duten disfuntzio emozionalak, kognitiboak eta/edo portaeraren alterazioak dira.

Definizio lauso horrek oso eremu zabala hartzen du barnean, norbanako desberdinen arazo bakar eta pertsonalak berdindu egiten ditu, eta zehaztasun falta horrek bidea irekitzen die egun erabateko arinkeriaz milaka pertsonari errezetatzen ari diren psikofarmakoei. Alterazioa egoera normal baten aldaketa baldin bada, zein da

psikearen funtzionamendu normala? Nork erabakitzen du hori? Non ipintzen dugu osasuntsu eta patologikoaren arteko muga? Normala izaten dena baino denbora gehiago triste egotea? Zein da tristuraren maila normala? Eta antsietatearena? Nola neurtzen da hori? Sufrimendu emozionala izateak, denboran luzatzen bada ere berdin, ez du esan nahi gaixorik gaudenik. Ez ulertzeak pertsona bat zergatik ari den oso-oso gaizki pasatzen ez du esan nahi diagnostiko psikiatriko batekin etiketatu behar dugunik nolabaiteko kontrol sentsazio bat edukitzeko. Gaur egun gaixotasuna artatzen da, sintomak, baina ez gaixotasun horrez gaindi sufritzen ari den izate hori.

Sintomak izozmendiaren punta besterik ez dira, eta zerbait esaten digute,

**SUFRIMENDU
EMOZIONALA IZATEAK
EZ DU ESAN NAHI
GAIXORIK
GAUDENIK**

jakinduria bat dute, entzun behar dugun mezu bat daramate. Bizi-zentzuaren arazo bat da, erpin anitzekoa: emozionala, existentziala, filosofikoa, kulturala, haurtzarokoa... baina bakarra eta berdingabea, pairatzen ari den pertsona bezalaxe.

Jakinekua da buruko gaitzek zerikusi handia dutela ingurunearekin eta arazo sozialekin. Gaur egungo krisi egoera izugarri eragiten ari da gizartean, batez ere sektore ahulenetan. Ni deprimituta baldin banago oso lan baldintza eskasak ditudalako nire lanpostuan, agian ez nuke psikologo baten laguntza bilatu behar, sindikatu batena baizik. Neure errealitatea ulertzen eta aldatzen saiatu behar naiz, eta ez etiketa edo diagnostiko baten atzean ezkutatu, horrela ez aldatzeko aitzakiari eutsiz: “ez naiz ni, ez da nire ardura, gaizki nago depresioa daukadalako”.

Ahalik eta azkarren sintomak kendu nahi ditugu, baina ondoez afektiboak ez da min fisikoa bezalakoa. Ez dugu erauzi behar, kontrakoa baizik; barrura sartu behar dugu, ulertu eta aurre egiten saiatu. ■■■

Komuneko kazetaritza



JUAN LUIS ROMATET

Umore, esan dezagun, inteligentea gustatzen zait, baina norbait txirrist eginda lurrera erortzen bada, kapaza naiz barrez hasteko. Hori bai, ni neu banaiz erortzen dena, horrek graziarik ez dit egiten. Wes Andersonen filmeetako umore sotila dut gustuko, baina Bud Spencerren pelikulekin ere oso ondo pasatzeko gai naiz, oso txarrak izanda ere.

Baina goazen inporta duenaz hitz egitera. Orain hilabete inguru *albiste* honekin egin nuen topo sarean: Leonor printzesak ekitaldi instituzional bat utzi behar izan zuen ondo sentitzen ez zelako. Beste era batera esanda, tripabuelta bat izan zuen, eta jatetxe bateko komunera joan behar izan zuen kaka egitera. Denoi gertatu izan zaigu hori noizbait, ezta? Ba, hortxe geratuko zatekeen kontua, une hartan jatetxean zeuden guztiek ez baliete eskatu izan argazki bat komunetik atera berria zen Leonor gajoari eta haren aita Felipe IV.a Espainiako erregeari. Iraultzarik izan ezean egunen batean Espainiako erregina izango den Leonorren burutik zer pasatuko ote zen? "Jope, kaka egiteko beharra nuen, hemen sartu naiz saltaka batean, eta orain jende honekin argazki bat atera behar al dut?".

Eta bitxikeriak halaxe bukatu beharko zukeen, anekdota moduan, hedabideek albiste bihurtu izan ez balute. Hala egin zuen Asturiasko *La Nueva España* egunkariak. Onartuko didazue titularra gaztelaniaz jartzea, euskaratuta No-Do kutsua galtzen duelako: "La Princesa Leonor, un ejemplo de profesionalidad, según los médicos, que tuvo que parar en un conocido restaurante de Cudillero por su indisposición". Gelditu, hemen jaisten naiz eta.

Noski, halako *albiste* batek zalaparta galanta sortu zuen Twitterren. Batzuek grazia handiarekin egin zuten txantxa, eta hemengo mozolo honek ere algara bat baino gehiago egin zuen, nahiz eta, onar dezagun, gaiak grazia handirik ez duen. Baina motza naiz, eta egun bat geroago atera nuen gaia lagun artean, eta orduan ere ezin izan nion barreari eutsi.

"Ez zaitezte joan, gehiago dago eta!", zioen Super Ratonek. *Lecturas* aldizkariak azalera eraman zuen Leonorren tripabuelta: "Asturiasko ekitaldi bat utzi behar izan zuen Leonorrek ondo sentitzen ez zelako". Eta, hemen, barrea izoztu zait. Benetan hau aldizkari bateko azalera eramateko kontua da? Konspiranoikoa ere jarri naiz, eta pentsatu ere egin dut errepublikazale baten kontua izan zela, eta istorio hori azalera eramanda monarkiari kalte egin nahi ziola. Baita zera ere! Espainiako hedabideak hain losintxariak izan dira –eta dira oraindik– Espainiako monarkiarekin, edozer gauza argitaratzeko gai direla borboitar bat tartean dagoenean.

Banoa barrea eragingo didan zerbaiten bila, Louis de Funèsen film zahar bat bada ere. ■■■

**BANOA BARREA
ERAGINGO DIDAN
ZERBAITEN BILA, LOUIS
DE FUNÈSEN FILM
ZAHAR BAT BADA ERE**

ferretería Galdona S.A.



burdindegia



Industriarako era guztietako
material, tresna, pieza, eta osagarriak.



JOSE MARI KORTA INDUSTRIGUNEA · Pab. A6.1, 2-5 mod.
Tel.: 943 86 11 17

Casa **BASUSTA** LORATEGIA

*Lorazaintza zerbitzuak | Oparitzeko lore sortak
Hileta eta ezkontza zerbitzuak | Apainketa eta dekorazio osagarriak*

Etxez etxeko zerbitzua!

**Santiago auzoa, 18
943-86 26 11**

www.floristeriabasusta.com



2022 GABONAK

Zumaiako Merkatariak

HERRIKO SALTOKIETAN
EROSTEAK SARIA DU

1.000€

200€-tako 5 bono
zozketatuko dira

6 OTAR
EDER

 **GERTU**
ZUMAIKO MERKATARI & GUSTALARI ELKARTEA

 Euzko Legebiltzarra

 Euzko Legebiltzarra

 ZUMAIKO MERKATARIAK